Txosten hau, 2000. urtean zehar TAT - Torturaren Aurkako Taldeak 76 euskal herritarrengandik jasotako tortura testigantzen oinarripean egina dago.

Diseinu eta maketazioa KOM-KOMUNIKAZIO taldearena da (esker aunitz)

Txosten honen helburua, Euskal Herriaren aurka frantses eta espainiar Estatuek erabiltzen duten tortura salatu eta plazaratzea da. helburu hontan zuk ere lagundu dezakezu. Txostena zabaldu, fotokopiatu, interneten sartu... Eskertuko genizuke.

ISBN: 84/95659/11/5
Dep. Leg.: SS-110/01

Gai zerrenda

Aurkezpena	**7**
2000. urteko testigantzak	**13**
Erabilitako tortura erak	**91**
Ikerketa orokorra	**92**
Guardia Zibila	**96**
Polizia Nazionala	**97**
Ertzaintza	**101**
Tortura eren kuadroa	**103**
Ezarritako salaketak	**105**
Torturaren eragin psikologikoak	**123**
Frantziar Estatua, entregak eta tortura	**129**
Tortura gainditzeko neurriak	**139**
Nazioarteko jarrerak	**143**
Zigorgabekeria: Torturatzaileei barkamena	**149**

AURKEZPENA

Berriz ere, **2000.urte honetako azterketa** egiterakoan, Estatu espainiarrean hainbat euskaldunek jasandako oinarrizko giza eskubideen urraketa aipatu eta salatu beharra dugu. Beste urte baten buruan, Euskal Herrian jarduten duten polizia eta segurtasun indarrek erabiltzen duten bortizkeria poliziala eta tortura edota tratu txarrak burutzeko zigorgabekeria agerian uztera beharturik gaude.

Txosten honetako orrialdeek, orbain honen biktima izan direnek sorturik, bizipen urratzaileenak eta gaindiezinezko egoerak adierazten dituzten kasu partikular eta zehatzetara hurbiltzen gaituzte. Orbain hau, aribide polizialetatik erauzirik edo desterraturik egon beharrean, arrazoi politikoengatik atxilotutakoei sistomatikoki ezartzeko tresna da. Are gehiago, instantzia instituzionaletatik gizartean saldu nahi den irudia adarjotze groteskoegia iruditzen zaigu, izan ere euskal herritarrek jasaten dituzten biolentzia irainkorrak, tortura esistitzen ez dela eta hau ekiditeko aski kontrol metodorikdagoela saldu nahi baitigute.

Horrela bada, bermarik eza eta eskubide urratzea erakartzen dituzten bizipenetan murgilduko gara, 2000. urtean zehar 76 euskal herritarrek jasandako egoera zakarrak eta biolentzia adierazpenak hemen aurkeztuz. Beste testigantza ugari bidean galduko da, isiltasuna gordetzera beharturik, gizakiaren bizitzan gisa horretako gertaerak ekar dezakeen trauma edo gaindiezinezko izuaren ondorioz. Hemen agertzen ditugun testigantzak tratu txarren biktimek TAT-ri kontatutakoen zatikiak dira, ikertzeko errazago eta erabilgarriagoak egiteko asmoz adierazpen edo bizipen pertsonalak ezabatu direlarik. Horretaz gain, egoitza judizialetan aurkeztutako salaketak eta hauei egindako jarraipen juridikoak ere eransten dira. Hauetako batzu, ordea, berehala tarteratuko dira.

Dudarik gabe, **arrazoi politikoengatik atxilotuei tortura eta tratu txarrak sistematikoki ezartzea sortzen duten zioak** ezagunak dira, hala nola indarrean dagoen legeria antiterrorista, kasu guztiak Entzutegi Nazionalak bereganatzea eta torturatzaileekiko kontrolik, ikerketarik eta zigorrik eza.

Atxilotutako euskaldunei "de facto" indarrean dagoen **terrorismoaren aurkako legeria** ezartzea da auziaren gakoa. Espainiar Estatuko barne legeriak zein legeria internazionalak, atxilotuen oinarrizko eskubideak berma daitezen, lege eta xedapen andana aurkezten dute.

Besteak beste, 1978ko Konstituzioaren 17.artikuluko 3.lerro-

aldeak eta Auziperatze Kriminalerako Legearen 520.artikuluko 2.lerroaldeak atxilotuaren eskubide batzuk bermatzen dituzte, hala nola bere aurkako akusazioa eta atxilotzeko zioak berehala ezagutaraztea, isiltasunerako eta deklaratzeari uko egiteko eskubidea izatea, atxiloturik dagoela eta aurkitzen den tokiaren berri norberak aukeratutako pertsonari jakinaraztea eta diligentzia polizial zein judizialetan parte hartuko duen abokatua aukeratzea.

Legeria internazionalean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 9.artikuluko 2 eta 3.lerroaldeek, pertsona orok atxiloketa eta bere aurkako salaketaren berri izan behar duela bermatzen dute. Atxilotua, epaile edota eginbide judizialetarako baimena duen funtzionario baten aurrera berehala eraman behar dutela ere azpimarratzen dute artikuluok. Horrez gain, Itun horren 10.artikuluak, askatasunaz gabeturik dagoen pertsona oro gizatasunez eta dagokion duintasunaz tratatzera behartzen du.

Giza Eskubideen Babeserako European Hitzarmeneko 5.artikuluaren 5.2 puntuak, atxilotuak atxiloketaren arrazoiak eta bere gain ezarritako salaketak berehala ezagutu behar dituela dio. 5.3 puntuak, berriz, atxilotutako pertsona beste luzapenik gabe epailearengana eraman behar izango dela jakinarazten du. Hitzarmen europearrak, deliktu bat burutzeaz salatutako pertsonen oinarrizko eskubideak ezartzen ditu 6.artikuluan; errugabetasun presuntzioa, salaketa ezagutzea eta defentsarako eskubidea izatea, esaterako.

Eremu internazionalean jarraituz, Presoen Traturako Nazio Batuen Asanblada Orokorraren Gutxienezko Arau Multzoaren 92.artikuluak salatuak familiari atxiloketaren berri berehala emateko eskubidea bermatzen du.

Hala eta guztiz ere, xedapen gutxi hauek ezezturik gelditzen dira espainiar Auziperatze Kriminalerako Legearen ezartzearekin. Aipatutako legeria honen 520 bis eta 527.artikuluek, aipatu eskubideak murrizten dituzte nabarmenki "talde harmatuetako kide, hauekin harremanen bat dutenekin eta gizaki terrorista edo matxinoen" kasuan. Beste auzi batzuen artean, atxiloketa epea (egun 72 ordukoa) beste 48 orduz zabaltzeko aukera ematen du. Horrela bada, epailearen arrazoizko baimenaren bidez, atxilotuaren erabateko inkomunikazioa lortuko da, aipatu eskubide batzuk desagertuz, hala atxiloketaz eta kokapenaz familiari berri emateko eskubidea nola abokatua libreki hautatzeko eskubidea ere. Are gehiago, epaileari inkomunikazio eskaera

luzatzeaz soilik, 24 orduren buruan erabaki behar duena, indar polizialek atxilotua inkomunika dezakete.

Ikus daitekeenez, aipatu artikuluen ezartzea arau internazionalekin kontraesanetan sartzen da. Artikulu internazional hauek honakoak dira hurrenez hurren: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna eta European Hitzarmeneko 14.artikulua. Hauek, legearen aurrean guztiak berdinak garela ezartzen dute eta, beraz, talde harmatuetako kide edo hauekin harremanak dituztenak, terrorista eta matxinoak, gainontzeko herritarrengandik ezberdintzea kontra egiten dio aipatu legeria internazionalari. Batez ere, ezberdintasun edo diskriminazio hau, bere pentsamendua dela eta lehenago aipatutako kategoria horretan kokaturik dagoen euskal herritarren garrantzizko sektore batean ematen da. Ondorioz, sektore honi legeria antiterrorista hau ezartzen zaio, lege, epaile eta tribunalen onespen eta baimenarekin.

Euskal atxilotu politikoen aurkako diligentziei hasiera emateko Entzutegi Nazionalak hartzen duen bereganaketa papera ere torturen izatearen garrantzizko arrazoia da.

Ez dugu ahaztu behar tribunal honek Espainiar Konstituzioaren 24.artikuluko 4.lerroaldearekin egiten duela talka. Artikulu honetan aurretiaz legeak ezarritako ohizko epailea izateko eskubidea, berme guztiak betetzen dituen alferreko luzapenik gabeko prozesu publiko baten eskubidea eta errugabetasun presuntzioa aitortzen dira. Horrez gain, Judikaturaren independentziaren inguruko oinarrizko Printzipioen multzoaren 5.arauak, gizaki orok ohiko justizia tribunalek legalki ezarritako prozeduren bidez epaitua izateko eskubidea duela adierazten du. Guzti honetatik, kausa ezagutu eta instruitzeko eskuduna, deliktua egin den tokiko komisioaren partaidea dela epaile naturala ondoriozta daiteke.

Bestalde, eta eremu praktikoan kokatuz, tribunal hau osatzen duten magistratuek, tratu txar eta torturen salaketen aurrean, ez dute jaramonik egiten, nabaritasunen aurrean paso eginez. Horrez gain, deklarazioak hasi orduko epaileentzat sendagile forentseek egiten dituzten txostenetan agertzen diren "deklarazioa burutzeko beharrezko egoera fisiko eta sikikoak betetzen ditu " gisako emendailuak ontzat ematen dituzte. Baina atxilotuak egindako deklarazioan bere egoera bost egun horietan jasandako torturen ondorioa dela argi gelditu arren, ez da inkomunikazio epean gertatutakoa aztertzeko sakoneko ikerkuntzarik egin.

Zentzu honetan, defentsako abokatuak egindako "habeas corpus" eskaeren inguruan epaileek ematen dituzten errefus edo ukapen sistematikoak nabarmentzen dira (eskaera hauek, pertsona atxilotua izan denetik 24 ordu baino lehenago egin behar da atxiloketa bortizki egiten denean edota atxilotua tratu txarrak jasaten ari den susmoa dagoenean).

Deklarazio polizialak torturen menpean burutu direnentz argitzeko epaileen ardura hutsala da. Sarritan, inkomunikaturik egon ondoren, beraien egoera fisikoa edo psikikoa dela eta deklaratzeko gai izan ez diren atxilotuentzako behin behineko kartzela zigorra ezarri dute epaileek, deklarazioa atxilotua zuzpertu arte atzeratuz.

Halaber, torturen menpean erauzitako deklarazio eta autoinkulpazioak baliozkotzat hartzen dituzte, Tortura eta beste tratu edo zigor krudel, ezgizatiar edo degradatzaileren aurkako hitzarmenaren 15.artikulua kontra eginez. Hitzarmen honek, tortura edo beste tratu edo zigor krudel, ezgizatiar edo degradatzaileren ondoren egindako deklarazioak ezin daitezkeela froga gisa hartu dio, edozein prozeduratan, ez tartekaturik dagoen pertsonaren ez beste inoren aurka.

Askotan torturak psikikoak direla eta atxilotua inkomunikaturik egon dela kontuan hartuz, galdekatzaileek lortu duten hobekuntza teknikoa dela eta, sarritan, oso zaila da torturak edo tratu txarrak jasan izan direla frogatzea. Horrez gain, badaude atxilotua torturatua izan deneko begibistako kasuak. Hala ere epaile batzuek kontuan hartzen dituzte egindako deklarazio polizialak atxilotuari deklarazioa hartzeko orduan lehenik (bere eginbeharra atxilotua galdekatzera mugatuz), eta atxilotuarentzat kartzela autoa ebazterakoan ondoren (beti ere deklarazio polizialean eta polizien ekarpenetan oinarrituz).

Entzutegi Nazionaleko magistratuek azkenaldian sarritan erabiltzen duten beste prozedura bat, atxilotuak konfidantzako abokaturik gabe deklaratzera behartzearena da. Honek, atxilotuaren eskubide urriak murrizten ditu, bere defentsarik eza nabarmenki areagotuz.

Tortura deliktuak ez jarraitzea, espainiar agintariek ezarritako salaketak ikertzeko agertzen duten interesik eza, aurrera eramandako prozesu urrien luzapena, deliktu hauek burutu dituztenei ezarritako zigor txikiek, inkomunikazio epeen inguruan kontrol eta berme arauak ezartzeari egiten zaion ukapen sistematikoarekin batera (gomendio

ezberdinetan erakunde eta nazioarteako instituzioek sarritan eskatu dutena hain zuzen ere), torturaren esistentziarako hirugarren zutabea osatzen dute. Aipamen berezia merezi du torturatzaileak apenik gabe sentitzen direla, aldez aurretik dakitelarik, aurrera egiten duten kasu urrietan ere, nahiz eta zigortuak izan, beraiek babestu eta estaltzen dituen sistemak berehala barkamena eskaini edo promozio eta igoerekin sarituko dituela.

Frantses lurraldeetatik bertako kartzeletan zigorra bete duten euskaldunak kanporatzen dituen heinean, ezin dezakegu ahaztu **frantziar Estatuak egoera honetan duen inplikazio zuzena**. Hau egitean, frantziar Estatuak bide legala, kontrol judizial bidez egindako estradizioa litzatekeena, lege-maula bidez alderatzen du, poliziatik poliziarako legez kanpoko ematea estaltzen duelarik. Aribide hau, arrunta izan arren (Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren erantzuna jaso duena eta epaitegi administratibo frantziar batzuek legez kanpokotzat jo dutena), euskal herritar hauek sofritzea eta torturen ezarpena pairatzea eragiten du. Frantziar agintariek badakite guzti hau eta berarekin kolaboratzen dute.

Azkenik, aipatu **egoera guztia ez zen sostengatuko hedabideen kidetasun eta laguntzarik gabe**. Torturaren praktikaren estalketa orokortua (tratu txarrei buruzko testimonio eta kontaketen inguruan batez ere), orbain hau salatzeko interesik eza, egileei ezarritako ikerketa edo zigorren inguruko desinformazioa... masa komunikabide gehiengoaren ohiko praktika da. Are gehiago, Euskal Herriak bizi duen arazo politikoa erauzteko, sofrimendu eta oinazearen baliozko tresna eragingarri hau aukeratu dute egunkari, irrati eta telebistek bere lerro editoriala osatzeko, azken finean miseria honi estaldura emanez.

Euskal Herrian 2000ko Otsailean

TESTIGANTZAK

1	López Bidaguren, Izaro
adina	25 urte
sexua	E
atxilotze data	2000/01/02
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa moeta	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI Nº4 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxilotzen duten unetik hasten dira mehatxu eta kolpeak, komisaldegira eramango duen kotxean sartzean alegia. Polizia batek bera bortitza ez dela esaten dio baina gainontzeko poliziak baietz; bera dela bera eta beste polizien arteko zubia dio, hots, hobe duela berarekin hitz egitea gainontzekoekin baino. Une horretan oso haserreturik dagoen polizia bat sartzen da gelan eta kolpe bat ematen dio. Poliziak galderak egiten dizkio. Atxilotuak erantzuna ez dakiela dioen bakoitzean poliziak kolpe bat ematen dio aurpegian. Ondoren beste 3 polizia sartzen dira gelan eta batek aurpegian jotzen duen bitartean, beste batek buruaren atzekaldean kolpeak ematen dizkio eta hirugarren batek belarrian egiten dio oihu. Komisaldegian bertan, abokaturik gabeko galdeketak etengabeak diren heinean, etengabeak dira baita ere mehatxu, kaskarreko eta belarrondokoak.

Tortura metodo ezberdinen ezartzearekin mehatxatzen dute, hala nola "poltsa", "pikana", "elektrodoak"... "Pikana" jasan ezingo zuenez, bere burua leihotik bota beharko duela esaten diote. Hau egin izan duen lehenengoa ez dela gaineratzen dute, eta beraiei ezer ez zaiela gertatuko adierazten dute. Bitartean kolpeek eta galderek jarraitzen dute. Polizietako batek bizkarretik lepora doan giharretik heltzen dio min handia eraginez. Eserita dagoen aulkitik zutiarazten dute eta leihoa irekiz bere burua bertatik behera bota dezala oihukatzen diote. Kolaboratzen ez badu bigarren fasera pasatuko direla esaten diote, torturatuko dutela eta ez duela guzti hau jasango.

2 Urretabizkaia Sauquillo, Jon

adina	22 urte
sexua	G
atxilotze data	2000/01/03
atxilotze lekua	Basauri
atxiloketa moeta	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI Nº4 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxilotzen duten unean polizietako batek kaskarreko bat ematen dio buruan baina beste batek toki horretan ez jotzeko esaten dio, komisaldegian horretarako astia izango dutela gaineratuz.
Kolpeak komisaldegira eramaten duen kotxean hasten dira. Polizietako batek burua eserlekuaren kontra botarekin zapaltzen dion bitartean, gainontzeko poliziek belarrondokoak eta ukabilkadak ematen dizkiote. Komisaldegira iristean, kotxetik ateratzeko, iletik heldu eta lurrera botatzen dute, kolpeak emanez gorputzeko toki guztietan.
Egiten dizkioten galdeketa ilegaletan, bi poliziek eskuturrak eta besogainak zapaltzen dizkiote, hirugarren batek barrabiletan ostikoak ematen dizkion bitartean. Beste une batean mahai batean etzaten dute eta gorputz erdi zintzilik duelarik, ostikadak ematen dizkiote barrabiletan. Beste polizia batzuk iletik tiratzen diote. Iraunkorrak dira irain, mehatxu eta presio psikologikoak.
Bere etxebizitzaren miaketa egiteko komisaldegitik ateratzen dutenean, ordu betez kotxe barruan mantentzen dute, burua hanka tartean duela. Musika eta berogailua topera daude, azken hau batzuetan hotzean eta bestetan beroan dagoelarik. Bitartean, polizia batzuk kotxearen kanpoaldean daude hau etengabe astindu eta joz.
Madrilerako ibilbidean zehar polizietako batek begiratzera behartzen du. Metraileta eskuan duelarik, kargatzeko keinua egin eta ergelarena eginez gero ba dakiela zer izango duen jakinarazten dio.

3ª	Uriarte Iturriaga, Julen
jaiotze data	71/07/19
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/01/03
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	Jci nº4 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxiloketaren unean, komisaldegira eramaten duten bitartean hasten dira kolpeak. Ukabilkadak ematen dizkiote aurpegi, buru eta barrabiletan. Komisaldegian ostikoak ematen dizkiote txarrenerako prestatzeko esaten dioten bitartean. Polizia batetik bestera pasatzen dute, mota guztietako mehatxu, astinaldi eta jipoien artean. Inguruko geletatik datozen oihuak entzuten ditu, beranduago konturatuz gainontzeko atxilotuen garrasiak direla.

Behin baino gehiagotan galdekatzen dute abokatuaren presentziarik gabe.. Galdeketa hauetan etengabeak dira bera eta neskalagunarenganako mehatxuak. Neskalaguna atxilotu eta alaba bakarrik utziko dutela esaten diote. Bere senideetako batzu ere atxilotuko dituztela, berea den taberna suntsituko dutela, kartzelan ustelduko dela eta bertan HIESaz kutsatuko dela, elektrodoak prestaturik dituztela... esaten diote. Polizietako batek mehatxu egiten dio trikornioa jarri eta kolpeka birrinduko duela esanez. Beraiekin kolaboratzea eskaintzen diote, ezezkoa jasoz.

Madrilerako lekualdatzean ez diote ia lorik egiten uzten, bere ondoan eserita doan poliziak ukondokadak ematen baitizkio taigabe.

Ordu askoz zutik eta burumakur egotera behartzearen ondorioz, kizkurgune bat pairatzen du lepoan.

Jasan izan dituen kolpe, presio eta irainak salatzen ditu epailearen aurrean.

4ª	Merino Bilbao, Guillermo
jaiotze data	72/04/17
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/01/03
atxilotze lekua	Basauri
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 4 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxiloketaren unean, bere izen-deiturak ematera uko egitean, lurrera bota eta burua ostikatzen diote.
Komisaldegian kolpeak eta mehatxuak hasten dira (mugituz gero astinduko zaitut esanez) buruan ostikadak ematen dizkioten bitartean.
Abokaturik gabe egiten dizkioten galdeketetan, laupabost polizien artean jipoitzen dute: belarrondoko, kaskarreko, bultzakada, ukabilkada, lurrera bota... Polizietako batek zangoak zabaltzen dizkion artean, beste batek barrabiletan jotzen du.
Madrilera lekualdatu baino lehen auto baten barruan mantentzen dute ordu eta erdiz beste hiru poliziekin batera. Une guztian burua hanka tartean mantendu behar du.
Etengabeak dira mehatxuak. Berak entzun dezan, makina baten funtzionamendua azaltzen dio polizia batek besteari (elektrodoak hain zuzen ere), ezarri egingo dizkiotela sinistaraziz. Beste une batean galtzak eta galtzontziloak jaisten dizkiote eta polizia batek barrabilak ukitzen dizkio mina duen edo izaten duen galdetzen dion bitartean.

5ª	Izpura, Mikel
jaiotze data	32 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/01/16
atxilotze lekua	Méxicotik entregatua.
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Epailearen aurrean salatu zituen komisaldegian egon zen egunetan jasandako tortura, tratu txar eta irainak.

6ª	Larrea Elorriaga, Josu Gotzon
jaiotze data	32 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/01/16
atxilotze lekua	Méxicotik entregatua
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Mexikon atxilotua eta espainiar poliziari Madrileko Barajas aireportuan entregatua.

Abokatuaren presentziarik gabeko galdeketa ugari jasan behar izan ditu, non hormari begiratzera behartzen duten, ukabilkada, belarrondoko eta ukondokadak ematen dizkioten bitartean. Galdeketa gehienetan bi polizia daude berarekin.

Presio eta mehatxuak jasaten ditu beraiek deklaratzea nahi dutena aitor dezan. Biluztera, hormari begira jartzera eta galtzerdiak benda gisa begietan jartzera behartzen dute, poliziek barrabilak bihurritzen dizkioten bitartean. Ez dezala semerik izan diote beraien artean. Haietako batek txistua bota eta buruz gora eta hankak zabalik gainean etzatera behartzen dute, batek oina barrabilen gainean jartzen dion bitartean, asko zapaldu gabe, guztiz degradaturik sentitu dadin.

Ziegara eramaten duten batean, polizietako batek eskua garondoan jartzen dio pistola gisa, pum-pum onomatopeia erabiltzen duten bitartean. Ziegan egiten duen denborari luze irizten dio, etengabe baitago galdaketa berri batera deitzen duten zain. Txarrenaren espero du. Une batean betaurrekoen kristalarekin bere buruari min egiteko gogoak sentitzen ditu, galdeketa gehiago jasan ezin izango duela uste baitu.

7ª	Arrieta LLopis, Mikel
jaiotze data	
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/01/17
atxilotze lekua	Méxicotik entregatua.
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Mexikon atxilotua eta Barajasko aireportuan espainiar poliziari entregatua izan da. Azken une honetan bertan hasten dira mehatxuak beldurra gorputzean sartuz: aupa Mikel, aurrekoan ihes egin zenuen, baina orain hemen zaude. Lasai, baditugu hitzegiteko egunak eta...

Jasaten duen lehenengo galdeketa nahiko lasaia da, bera analizatzen baleude bezela. Ondoren mediku forentsearen bisita du eta honek alde egitean, "benetako galdeketak" hasten dira, benetako presio psikolojikoekin, oihuekin, etengabeak dira mehatxuak: badakizu nolakoa den hau, kolaboratuz gero ez da ezer gertatzen, baina kolaboratzen ez baldin baduzu, astinduko zaitugu. Deklaratzeari uko egiten badiozu, meatzera jaistera derrigortuko gaituzu. Hitzegin zazu, bestela neskalaguna ekarri eta ikusiko duzu nola zabaltzen duzun ahoa. Zu jadanik desfasaturik zaude, azken mohikanoa izan nahi duzu eta korotza zara... . Poliziek oihu egiten dute, buruan eta belarrian jotzen diote, izugarrizko mina sortuaz. Mehatxu eta presio psikologikoak jasan behar ditu.

8ª	Otxoa de Eribe Landa, Jose Angel
jaiotze data	
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/01/17
atxilotze lekua	Méxicotik entregatua.
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Jasan behar izan zituen galdeketetan etengabeak dira kolpe, presio eta bere senideenganako mehatxuak.

9ª	Gastesi, Garikoitz
jaiotze data	19 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/12
atxilotze lekua	Orereta
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Komisaldegira eramango zuen kotxera sartzeko unean bertan hasi ziren kolpeak buru eta aurpegian, gidariak aurpegian ukabilkadak ematen zizkion artean. Guzti hau mehatxu eta iraintzen zuten bitartean. Denbora tarte batez kotxean bueltaka jarduten dute, mendira eramango dutela esanez. Komisaldegiko atarira heltzean, korrika sartzen dute barrura, eta oraindik eskuburdinak jarrita dituelarik lurrera bota, aulki bat gainean jarri eta sei edo zazpi polizia gainean esertzen zaizkio ostikaden artean. Zakar poltsa bat jartzen diote buruan eta honen gainean paperontzi bat. Jotzen eta galdekatzen jarraitzen dute.

Galdeketetako batean, aulki batean eserita dagoela, burua mahaitik hurbil egotera arte makurrarazten dute. Galderetako bati ezezkoa eman edo ezer ez dakiela erantzuten duen bakoitzean, bere atzekaldean dagoen polizia batek burua mahaiaren kontra zanpatzen dio. Bere atzean dagoen emakume polizia batek belarrondokoak ematen dizkio. Polizia batek mehatxatu egiten du Madrila heltzean ipurtzulotik makila bat sartuko diotela, baina agian ezin izango duela hara heldu arte itxaron esanez. Une horretan, poliziak lepotik heldu eta atxilotua lurretik altxatzen du min izugarria sortaraziz.

Madrilerako lekualdatzean mehatxuek jarraitzen dute. Bertan ere etengabeak dira kolpe, iseka, umiliazio eta mehatxuak.

10ª	Urbieta Huizi, Gorka
jaiotze data	19 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/12
atxilotze lekua	Orereta
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Lagunak bere kontra deklaratzen ari direla eta hitzegiten ez baldin badu hautsontzia buru gainean hautsiko diotela esaten diote. Polizia batek ukondoa bizkarrean sastatzen dion bitarten, gartzelara joango dela eta bertan ipurditik eman eta hormaren kontra joko dutela esanez mehatxatzen dute.

Jasan behar duen beste itaunketa batean hormaren kontra kukubilko jartzera derrigortzen dute. Beraiekin kolaboratzea eskaintzen diote.

Madrila lekualdatzeko narraz eta eskuburdinik gabe eraman behar dute, indarrik ez duelako. Behin Madrilen, beste lau galdeketa egin zizkiotela uste du, batzu ordu askotakoak eta beste batzu laburragoak.

Egiten dizkioten itaunketa ilegaletako batean antsietateak jo eta poliziak izutu egiten dira sorostetxe batera eramaten dutelarik. Handik larrialdietara eramaten dute.

Inkomunikazioak irauten dituen hiru egunak negarrez pasatzen ditu.



11ª	Urbe, Egoitz
jaiotze data	20 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/12
atxilotze lekua	Oiartzun
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Bere etxetik komisaldegirako bidean hasten dira mehatxuak: jabetuko zara, ikusiko duzu... Bortizki sartzen dute komisaldegira, "pasabidea" eginez, lurrera begiratzeko esanez eta oraindik aurrera begirada altxatu gabe egongo dela esanez. Ostikadak eta jipoiak ematen dizkiote buruan, Hemen dugu beste putaseme bat oihukatzen dioten bitartean.

Itaunketa ilegaletan etengabe egiten diote garrasi. Jo egiten dute. Jipoitu egingo dutela, ipurtzulotik makila bat sartuko diotela esaten diote. Hasieran lagunek ere hitzegin nahi ez zutela, baina azkenean guztia esan dutela eta kartzelan sartuko dutela esaten diote. Oihu egiten diote. Aldameneko geletatik datozen garrasiak entzuten ditu.

Aulki batean esertzera behartzen dute burua mahai batetik oso hurbil makurturik mantendu behar duelarik. Polizientzako atsegina ez den erantzun bat ematean zein behar den beste azkar ez erantzutean, buruan jotzen dute, mahaiaren kontra kolpekatzen delarik. Nahiz eta gehienetan eserita egon, une batzutan paretari begira egotera derrigortzen dute.

Madrilerako lekualdatzea, gutxi gora-behera lau ordukoa, burua hanka artean makurturik egin behar du, ez baitiote inon eusten uzten, ezta lo egiten ere. Madrilen, egun guztiak dira berdinak. Galdeketetan etengabeak dira mehatxuak eta kolpeak, lagun eta senideen aurkako mehatxuak batez ere.

Ziegara eramaten dutenean ez diote lo egiten uzten, atea jo edo lehiatilatik begiratzeari ekiten baitiote.

12ª	Gurrutxaga, Oroitz
jaiotze data	18 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/12
atxilotze lekua	Orereta
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Etxetik atera eta kotxean sartzean buruan jotzeari ekiten diote, gurasoak aurrean izan gabe horren adoretsua ez dela esanez. Mendira eraman eta bertan hitzegingo duela esatearekin egiten diote mehatxu. Komisaldegira heltzean, iletik heldu eta narraz ateratzen dute autotik. Gela batean sartzean armairu bat botatzen diote gainera mehatxu eta kolpeen artean.

Itaunketetan, beti ere abokatuaren presentziarik gabe, ezer ez dakiela erantzuten duen bakoitzean kaskarrekoak ematen dizkiote, hilko zaitugu gisako oihuen artean. Aldameneko geletatik datozen garrasi eta kolpeak entzutera behartzen dute, hitzegiten ez badu beste polizia haien esku utziko dutela esanez. Mehatxuak taigabeak dira: Mingaina aterako dizut. Erratzaren makila sartuko dizut ipurtzulotik. Kartzelan zu bezalako galantei ipurditik ematen diete... Denborak aurrera egin ahala poliziak urduriago jarri eta kolpeak ugaritzen dira.

Madrilerako bidaia osoan zehar makurturik eta eskuburdinez joatera behartzen dute. Ez diote lo egiten uzten, loak hartzen duen bakoitzean polizia batek ukondoaz jotzen baitu. Bere aldamenean doan poliziak beraiekin kolaboratuz gero eskuburdinak kenduko dizkiotela esaten dio, aurreko poliziak jo egiten duen bitartean.

Madrilen, polizietako batek alkandora ireki eta pistola ateratzen du berak ikus dezan. Ondoren galtzetan sartzen du. Galdeketetan zutik, hormari begira egotera behartzen dute indarrik gabe geratu arte. Senitartekoen aurkako mehatxuak etengabeak dira: Kolaboratuz gero, zure esku dago anaiaren eta zure etorkizuna. Zure ama oso gaizki egongo da, oraintsu operaturik baitago...

Azkenean, deklaratzea nahi dutena buruz ikastera derrigortzen dute. Deklarazio poliziala ezeztatzen duenean, epaileari esaten dio gehiago ezin izan duelako egin duela.

13ª	Lujanbio, Mikel
jaiotze data	19 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/12
atxilotze lekua	Orereta
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Dependentzia polizialetara eraman eta jarraian hasten dira itaunketa ez legalak, non zortzi bat urtez kartzeleratuko dutela, gainontzeko atxilotuak sabotaia ekintzetan inplikatzen ari zaizkiola, gezurretan ari dela konturatzen badira elektrodoak eta bainontzia aplikatuko dizkiotela. "Bainontzia", "elektrodoak"... ezartzearekin mehatxatzen dute. Hormaren kontra zanpatzen dute behin baino gehiagotan. Kolpatzen dutenak beti dira emakume poliziak, gizonezkoak mehatxuka ari diren bitartean. Azken hauek dira gehien izutzen dutenak. Ziegan dagoen bitartean behin baino gehiagotan joaten zaizkio gogaitzera, lo egiten ez utziz.

Deklarazio poliziala ikastera behartzen dute. Polizia batek deklarazioa egiterakoan inoiz esan edo entzungo ez balu bezala egiteko esaten dio, ez dutela sekula elkar ikusi. Epailearen aurrean deklarazio poliziala berresteko esaten diote, bestela gauzak oker joango zirela eta ez salatzeko tratu txarrak eta torturak, bestela mediku forentse bat agertuko zelako eta inogo markarik aurkituko ez zituenez, bai bera eta baita epailea ere berataz barre egingo zutelako, eta salatuz gero, orduan bai torturatuko zutela. Jasan behar dituen presioak hain dira gogorrak epailearen aurrean deklarazio poliziala berretsi egiten duela errepresalien beldur. Beranduago deklarazio judiziala aldatu zuen.

14ª	Ostolaza, Mikel
jaiotze data	18 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/17
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxiloketaren unean bertan hasi ziren irainak: “Zertan ari zarete putasemeak”. “Korotza zarete”. “Horrela nola lagunduko duzue Euskal Herria...” Ohartu orduko pistola bat zuen buruan. Ez ziren identifikatu, baina Ertzainak zirela jakin zuen hitz batzu euskaraz egin zituztelako.

Komisaldegian biluztera eta hormari begira jartzera derrigortzen dute. Nahiz eta ertzainak kaputxaturik egon aurpegira ez begiratzeko esaten diote.

Itaunketa batzutan ez dago abokaturik, etengabeak eginez galdera, irain eta mehatxuak: Kristoren marroia jango duzu. Nortzuk zeundeten esanez gero denen artean banatuko da, baina ezer ez badiguzu esaten zuk bakarrik jango duzu eta sei urte ez dizkizu inork kentzen. Ez ditu une batzuk gogoratzen eta beste batzu nahiko nahasirik ditu. Ertzainek nahi dutena aitortuz bi deklarazio polizial egiten ditu.

Ez diote senideek eramandako arropa ematen ezta Madrilera joan orduko garbitzen uzten ere. Bidaia oso kaskarra da atzean eskuburdindurik eta burua hanka artean makurturik joan behar baitu. Jasotako tratua epailearen aurrean salatzen du, fisikoki horren latza izan ez arren (nahiz eta kolpe batzu jaso) psikikoki lur jota dagoela, galdurik aurkitzen dela eta oso gogorra egin zaiola esanez.

15ª	Velez, Karlos
jaiotze data	16 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/19
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Psikologikoki presionatu izan duten galdeketa ilegalak jasan behar izan ditu.

16ª	Imaz, Gorka
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/19
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Atxilotu bezain laster lehenengo aldiz bere bila etxera sartu zirenean bertan zergatik ez zegoen galdetzen diote. Behin baino gehiagotan egiten dizkiote galdeketa ilegalak, mehatxuak jasanez: "Atzera begiratuz gero, ikusiko duzu, hiru egun gelditzen zaizkizu". “Nik nahi dudana esango duzu”. “Zure laguna oso gaizki pasatzen dago. Berak bezala pasatu nahi duzu?" Beraiek nahi dutena esan dezan presioak oso gogorrak dira: Epailearengana jarrera onarekin joaten baldin bazara, aske izango zara, gero deituko zaitugu egunen batean gelditzeko.... Gauzak horrenbeste errepikatzearen poderioz, azkenean esaten dioten guztia sinisten du, psikologikoki asko jolasten baitute pertsonekin. Galdeketetako batean ukabilkada bat ematen diote.

Ziegan dagoenean ez diote atseden hartzen uzten, behin baino gehiagotan baitoaz gogaitzera. Bi egunetan ez diote bazkaririk ematen eta afaria oso berago eramaten diote, ertzainek diotenez, galdeketetan ez duelako nahi dutena erantzun.

Deklarazio judiziala egiterakoan jasan dituen presioak salatzen ditu.

17ª	Solano Salaberria, Jokin
jaiotze data	20 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/26
atxilotze lekua	Goizueta
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Komisaldegira eramateko autoan sartzen duten unean hasten dira mehatxuak: “Mementu honetatik nahi dudana egingo dut zurekin eta nigana eta kide batengaba zuzentzen zarenean jaun gida zuzenduko zara”. “Korotza zara, putasemea, ez duzu deus balio”. “Txikituko zaitut”. “Nahi dudan denbora osoa edukiko zaitut hemen”. “Zure lagunak marroi guztietan zu sartzen ari dira, kristoren marroietan”. “Inozo bakarra zu zara”. “Aitortzen ez baldin baduzu oso gaizki pasatuko duzu. Egun asko emango dituzu nirekin eta nire amarengatik egiten dizut zin oso gaizki pasatuko duzula”. Arreba eta honen mutilaguna ere atxiloturik zeudela eta oso gaizki pasatuko zutela esan zioten, bere aitormenaren esku zegoela arreba guzti honetatik igarotzea edo ez.

Hasieran kaskarrekoak ere eman zizkioten, garondoaren inguruan eta baita paretaren kontra bizkarrarekin. Narraz eramaten zuten leku batetik bestera, jertsea apurtu ziotelarik hainbeste tirakadaren ondoren.

Itaunketa asko egin zizkioten, guztiak abokaturik gabe, baina ezin dezake zehaztu zenbat izan ziren. Egunean laupabost izan zitezkeela dio. Guztietan hormari begira eta gelako bazter batean egotera behartzen zuten. Mahatxuak eta irainak etengabeak ziren, umiliatu nahi zuten: Hemendik hogei urtera, kartzelatik ateratzen zarenean, jarriko dizute pankartaren bat zure herrian. Oihu egiten zuten horma joz. Neskalaguna atxilotuko zutela esan zioten, berak egiten zuen guztia kontatuko baitzion: Zer, eta larrua jo ondoren ez zenion ezer kontatzen, ala?. Galdeketetan bere burua nahasi nahi dute esaten ari zirena berak aitortu zuela esanez. Azkenean ez daki zer benetan aitortu duen.

Mediku forentsearen aurrean jasandako tratua salatu ondoren, ertzainek hurrengo itaunketan mehatxatu zuten “Ea zer diozun hortik. Hobe duzu isilik egon, bestela hilko zaitugu eta. Gaizki zaintzen ari garela uste duzu ala? Ikusiko duzu berarekin berriz hitzeginez gero nola tratatuko zaitugun” esanez. Errepresalien beldur, forentsearekin izan zen guztietan tratu ona izaten ari zela esan zuen.

Deklarazio judiziala egiterakoan, bere kasua eraman zuen ofiziozko abokatua fiskalaren kartzela eskaerarekin ados agertu zen.

18ª	Karrera, Eduardo
jaiotze data	20 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Aske
salaketa	

Oiartzungo komisaldegira eramaterakoan denbora luzez daukate auto barruan etzanda, ordu bat edo ordu eta erdi batez alegia.

Komisaldegian, etengabeko galdeketak jasan behar ditu, beti ere abokaturik gabe. Hauetan, hormari begira egotera behartzen dute, bizkarrean eskuburdindurik eta burumakur, haiek begiratu gabe. Itaunketa hauetan presio psikologikoak, isekak eta mehatxuak jasan behar izaten ditu. 15-20 bat urtez Salto del Negron kartzeleratuko dutela esaten diote kartzelarik txarrena baita. Jo egingo dutela eta oso gaizki pasatuko duela esaten diote. Senitartekoak eta neskalaguna iraintzen zuten, azken hau atxilotuko zutela... Galdeketetan asko nekatzen dute, galderak konstanteak dira , behin eta berriro galdera berdinak. “Polizia ona eta polizia txarraren” jokua egiten zuten. Galdeketak egunez zein gauez ziren, atsedenik hartzeko denborarik utzi gabe.

Ziegan zegoenean, denbora guztian argia piztuta zegoen. Behin baino gehiagotan joaten ziren zirikatzera, atea joz bera zutik jarri behar zelarik, paretaren kontra, eskuak atzean zituela eta burua behera.

Deklarazio poliziala ikastera derrigortzen dute eta deklarazio judiziala egiterakoan, berretsi egiten du aitormen poliziala, ertzainek esandakoa egia zela eta kaleratuko zutela sinistuz.

19ª	Velez, Xabier
jaiotze data	18 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/17
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Aske
salaketa	

Abokaturik gabeko galdeketak egiten dizkiote hormari begira, burumakur eta eskuburdinez dagoen bitartean. Galdeketa hauetan, konstanteak dira oihuak eta hormaren kontra bere ondoan ematen dituzten kolpeak, bera izutu nahian. Beraietako batek atea jo edo leihatila zabaltzen duen bakoitzean zutitu, hormari begiratu eta eskuak bizkarrean jarri behar dituela esaten diote. Era honetara, ez diote lorik egiten uzten, loak hartzear dagoenean gogaitzera joaten baitzaizkio. Argia denbora guztian dago piztuta “segurtasun arrazoiengatik", beraien esanetan.

Senideekin presionatzen dute, batez ere anaiarekin. Etengabe ematen dizkiote kolpeak hormari, oihukatzen duten bitartean.

Madrilerako bidaia oso latza da, kaiola antzekoak dituen furgoneta batean eramaten baitute. Horrez gain, ezin dezake burua altxatu, kamerak baitaude. Burua altxatuz gero, ertzainak hurbiltzen zaizkio mehatxu eginez.

20ª	Gurrutxaga Rafael, Iñaki
jaiotze data	17 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Komisaldegira bidean, etxetik irten bezain laster eman zieten hasiera oihu eta mehatxuei: “Zu hiltzeko modukoa da, gurasoak horrela uztea...” “Hau ez da ezer, ikusiko duzu komisaldegira heltzean. Ni oso ona naiz, ikusiko duzu nire lagunak harrapatzen baldin bazaitu...” Bidaia osoa burua hanka tartean makurturik eta atzetik eskuburdindurik eramaten dute. Komisaldegira heltzean, gutxi gora behera ordu batez kotxe barruan egotera behartzen dute. Mugitzen den bakoitzean kanpoan zeuden ertzainek oihu egiten diote kanpoan zeudela adierazteko.

Egiten dizkioten galdeketetan (uste du sei izango zirela gutxi gorabehera), zutik eta paretaren kontra egotera behartzen dute, etengabeak dira mehatxuak ("pazientzia bukatzen ari zait, orain nire laguna etorriko da...", orduan beste ertzain bat sartzen zen gelan guztiz haserre, oihuka eta paretari kolpeak emanez), oihuak, irainak eta presio psikolojikoak beraiek nahi dutena aitor dezan. Buruan kolpeak ematen dizkiote, lepoan ere eta bultzadak.

Itaunketetan bero handia nabaritzen du eta izerditan hasten da. Ziegara eramatean berriz, hotzitu egiten da izugarrizko hotza egiten baitu. Behin baino gehiagotan joaten dira ertzainak bera gogaitzera, zutitu eta eskuak bizkarrean dituela, burumakur, hormari begira jartzeko aginduz. Guzti hau mota guztietako mehatxuen artean. Kaskarreko batzu, bizkarrean kolpeak eta hormaren kontrako sakakadak ere ematen dizkiote.

Deklarazio poliziala ikastera behartzen dute, behin baino gehiagotan irakurtzen baitiote. Ikastean, hots, beraiek nahi dutena esatean, tratua pixka bat hobetzen da. Ertzainek ziotena sinisturik, guztiak kalera aterako zirela ustez, epailearen aurrean deklarazio poliziala berresten du.

21ª	Zuloaga Larrea, Ahiletz
jaiotze data	22 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Komisaldegira bidean etxetik atera baino lehen, burua makurtzeko agindua ematen diote. Bidaia osoa modu honetara egitera behartzen dute. Oiartzuneko komisaldegira heltzean, kotxe barruan egotera derrigortzen dute denboraldi batez. Ondoren, Gasteizerako bidea hartzen dute.

Gasteiza heltzean, ertzainek "pasabidea" egiten diote irainen artean. Ziegara eramaten dute, atea jo edo zabaltzen den bakoitzean, zutitu, eskuak bizkarrean jarri eta burumakurtu, hormari begira jarri behar dela aginduz. Beti zeuden bi ertzaina berarekin, baina ezin zituen begiratu, kaputxaturik joan arren. Begiratuz gero, kaskarreko bat ematen zioten.

Legez kanpoko galdeketetan hormari so egotera behartzen dute, eskuak bizkarrean, burua makurturik eta belaunak erdi flexionaturik. Taigabeak dira mehatxu, irain eta isekak: "Korotza zara, negarrez ikus dezazun neskalaguna ekarriko dugu". "Zure amak prostituitu beharko du zu bisitatu ahal izateko". "Korotza zara, nazka ematen didazu". "Ez zaitut ikusi nahi jipoitzeko gogoak etortzen baitzaitizkit, nazkagarri hori..." Itaunketetako batean zorabiatu eta ertzainei esatean, axola ez diela esaten diote, medikua bertan dagoela, "baina ez zaitez atzelari baten gisa hemen zorabiatu" esanez. Eskubarruaz ere jotzen diote aurpegian eta baita egunkari edo antzeko zerbaitekin.

Gauetan ez zioten lo egiten uzten, etengabe baitzihoazen atea kolpatzera. Zutitu eta hormari begira jarri behar zuenez, ezinezkoa zen loak hartzea. Gauetako batean oihuka hasi zitzaizkion: "Alfer hutsa zara. Berriz ere lo ikusten bazaitut, hostiaka lehertuko zaitut". Nahiz eta atxilotuak hegaluzeak alergia antzeko zerbait egiten diola esan, bazkaltzeko hegaluze patata tortilla ematen diote.

Deklarazio judiziala egiterakoan, ezarri zaion ofiziozko abokatuak kartzela zigorra eskatzen du berarentzat.

22ª	Gorrotxategi, Imanol
jaiotze data	17 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Etxetik atera bezain laster soka batekin lotzen dizkiote eskuak. Komisaldegira eremango zuen autoan sartzean, jertsearen txanoa jartzen diote buruan, mehatxuen artean: “Burua altxatuz gero linterna jango duzu”. Komisaldegirako ibilbide osoa loturik eta burua hanka artean makurturik egiten du.

Abokaturik gabeko galdeketetan, burumakur, eskuak bizkarrean eta hormari begira egon behar du. Galdera bati ezezkoa ematen zion bakoitzean, mehatxatu eta psikologikoki presionatzen zuten: “Hobe duzu gizonezkoak gustatzen hastea, kartzelara joango baitzara”. “Ez dituzu gurasoak berriz ikusiko. Egia esaten ez baduzu guzti hau jango duzu”, diote poliziek egondako sabotaien zerrenda bat erakutsiaz. Kolperen bat ere ematen diote.

Ez diote ia lorik egiten uzten, ziegan dagoenean hormari begira jartzeko atea jotzen baitzuten. Ziegan dagoenean, argia piztuta dago, batzuetan gogorrago jarriz, kanpotik erregulatuz.

Deklarazio judizialean ofiziziozko abokatua fiskalarekiko adostasuna agertzen du honek gartzela zigorra eskatzean.

23ª	Villar, Jon Ander
jaiotze data	17 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Etxetik atera eta kotxean sartzean burua makurtu behar duela esaten diote. Komisaldegirako bidaia osoa modu honetan egiten du, burua hanka artean eta bizkarrean eskuburdundurik alegia. Hemen hasten dira mehatxuak. Ertzain batek burua altxatuz gero linterna jango duela esaten dio. Komisaldegira heltzean, kotxe barruan edukitzen dute mugitzen utzi gabe.

Itaunketa ugari jasan behar izan zituen, baina ezin dezake zehaztu zenbat izan ziren. Hauetan, zutik, hormari begira eta eskuak bizkarrean egon behar du. Pairatu behar dituen presio psikologikoak oso gogorrak dira, oihukatu egiten baitiote, horma jo eta oso bortitz baitaude. Modu honetan bera intimidatzea lortzen dute, beraiek nahi dutena deklaratuz komisaldegian. Deklarazioa ikastera behartzen dute. Ondoren tratua pixka bat hobetzen da.

Deklarazio judiziala egitera doanean, psikologikoki oso nekaturik dago, eta egoera hau bukatzea baino ez du nahi. Epaileak deklarazio poliziala berresten duen galdetzean, gazteleraz adierazteko zailtasunak dituenez, galdetutakoa ulertzen ez duela esaten du. Epailearen erantzuna “zuk ulertzen ez baldin baduzu..." da. Urduri jarri eta ez dakienez zer erantzun behar duen, ertzainei kasu egitea erabakitzen du. Fiskalak “prisión” esatean, ofiziozko abokatuak “de acuerdo” erantzuten du. Epaileak jasotako tratua zer nolakoa izan den galdetzean, oso ona izan ez dela ihardesten du, mehatxu eta presioak jasan behar izan baititu.

Ezin ditu gogoratu komisaldegian igarotako une guztiak.

24ª Miner Canflanca, Iñaki

jaiotze data	20 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/26
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Lehengo mementutik, etxean, bere ama musu bat ematera hurbiltzen denean, sakatu eta ez dute hurbiltzen uzten. Ertzainek bortizki sakatzen dute.

Mehatxuak komisaldegira eramango duen autora sartzean hasten dira. Burua hanka tartean makurturik eramatera behartzen dute. “Nirekin oso ondo zaude, ikusiko duzu nire laguna, huts emango didazu”. “Kartzelara joango zara, Salto del Negrora. Zure familia bisitatzera joango dela uste duzu?” “Kristoren hostia emango dizugu...” esaten diote.

Mehatxuek egiten dizkioten ez legezko itaunketetan dute jarraipena. Hauetan hormari begira, burumakur eta eskuak bizkarrean egon behar du. Kolpeak ematen dizkiote buruan, bizkarrean eta lepoan. Honez gain, irainka ari dira etengabe, adimen urrikoa dela, guztien artean inozoena dela esaten diote. Galdera baten erantzuna ez dakiela esaten duen bakoitzean kaskarrekoak ematen dizkiote.

Komisaldegian deklaraziorik egingo ez duela esaten duenean, ertzainen jarrera oso bortitz bihurtzen da.

Madrilerako bidaia barruko kaiolak oso txikiak dituen furgoneta baten egiten du. Burumakur joatera behartzen dituzte atxilotuak. Kaiola barruan kamera txikiak daudenez, burua altxatzen duten bakoitzean ertzainek atea kolpekatzen dute. Entzutegi Nazionalean, epaileari kontatzen dionean jasandako tratua nolakoa izan den (mehatxuak, presioak), honek honako hau erantzuten dio: “Begira, Miner jauna, ez dizut esandako ezer ere sinisten, guzti hau oso ikusia baitago”. Ezarri zaion ofiziozko abokatuak fiskalak eskatutakoarekin ados dagoela esaten du.

25ª	Telleria Lujanbio, Angel
jaiotze data	23 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Presioak komisaldegira eramango duen autoan sartzean bertan hasten dira: “Baina zer egin duzu, ikusi ama, nolako nahigabea eman diozun...” Bere ama alarguna denez, hori erabiltzen dute presio gisa, bakarrik gelditukо dela esanez, etab.
Etengabeak dira mehatxatu, oihukatu eta iraintzen dutenеko galdeketak. Beraiek nahi dutena deklara dezan mahatxatu eta presionatzen dute, beti ere kaskarreko eta ostiko batzuen artean. Itaunketa batean ipurditik emango diotela esaten diote. Une horretan heldu, beste gela batetara eraman eta galtzak jaisten dizkiote lauhazka jartzeko agintzen dioten bitartean. Ertzainetako bat atzekaldean jarri eta honela dio: “Gaur ez, ez baitut baselina ezta kondoirik”. Itaunketetan flexioak egitera behartzen dute. Nekearen nekeaz lurrera erortzen denean, berriz hasteko agintzen diote abaildu arte.
Madrilerako bidaia kaxa antzekoak dituen furgoneta batean egiten du. Burumakur joan behar du eta burua altxatuz gero ertzainek atea kolpekatzen dute.
Epailearen aurrean jasandako presio eta tortura psikologikoak salatzen ditu.

26ª	Gasamanes, Jon
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Etxean bertan eskuburdindu zuten, eta etxeko eskailerak jaisten zeudenean eman zioten lehenengo kolpea. Hormaren kontra jo zuten buruaz, mehatxuen artean: “Ez egin eskandalurik, eta zuzenean kotxera, bestela burua zatituko dizut, putaseme hori”. “Nire kideetako batek galdetzean, zure erantzunak “bai jauna” izan behar du”.

Komisaldegian jarraipena izan zuten kolpe eta mehatxuek: “Tira Jon, badakizu zer espero dudan zutaz, zure esku dago hemen ongi edo gaizki pasatzea. Badakizu zergatik zauden hemen?” Bere erantzuna ezezkoa izan zen, berak ez zuela ezer egin, eta jarraian ertzainak jo egin zuen.

Abokaturik gabeko galdeketa asko egin zioten. Hauetan mehatxuek jarraitzen zuten: “Guztiek sartu zaituzte, beraz ezin duzu ezeztatu”. “Tira Jon, denbora luzea daukagu elkarrekin egoteko. Gogora ezazu “pastel” handia duzula guztiek “abestu” bait zaituzte”. “Pentsa ezazu neskalaguna zai duzula”. “Gauza asko jango dituzu, hau, bestea...” “Egona zaude hemen? Ez? Ba, jango duzu hau ere”. Ama eramango zutela esaten ziote bere jarrera ikus zezan. Neskalagunarengatik galdetzen zioten, atxilotu egingo zutela, ez zuela gehiago ikusiko, kartzeleratuko zutela esanez. Aldameneko gelan “elektrodoak” zituztela esan zioten, honako hau gehituz: “Edo hau jaten duzu edo ez zara hemendik ateratzen”.

Madrilerako lekualdaketa kaiola gisako departamendu txikietan banaturik zegoen furgoneta batean egin zuen. Kaiolek kamerak zituzten, eta beraz, burua altxatzen ba zuten, ertzainek mehatxatu egiten zituzten. Deklarazio judiziala bukatzerakoan, fiskalak eskatutako gartzela zigorrarekin ados agertu zen ezarritako ofiziozko abokatua.

27ª Kijera, Unai

jaiotze data	20 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/26
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Etxetik jaisten ari zirela, sakatu eta mehatxatu zuten: “Miseria gorrian murgilduko zara”. Kotxean sartzerakoan burua autoaren kontra zanpatu zioten, burumakur joan behar zuela aginduz. Bere ondoan zihoan ertzainak borrarekin ematen zion buruan.

Komisaldegira heltzean mehatxuek jarraipena izan zuten: “Zer? Gogorrarena egiten duzu? Ez didazu egin duzuna kontatuko? Ez baduzu orain hitzegiten, barruan egin beharko duzu, onez edo txarrez”. “Tira, jator, ederra datorkizu. Unai, kakaztu duzu”. Kolpekatzen zuten. Segidan, ziegara eraman eta biluztu egiten dute. Argazkiak egin, arakatu, janzteko esan eta hurrengo egunean hasten dira galdeketak.

Itaunketa guztietan (zazpi bat), beti ere abokaturik gabe, galdera asko egiten dizkiote. Iraindu, jo eta mehatxatzen dute: “Batek baino gehiago egin du txisa eta kaka bazter honetan, entzun? Hobe duzu dena kontatzen hastea, bestela badakizu zer egiten diegun terroristei, ezta?” “Poltsa zer den jakin nahi al duzu?”. Kokoriko jartzera behartzen dute, eta mugitzen den bakoitzean zangoetan jotzen diote. Senideak bere egoeragatik arduragabe daudela sinistarazten diote. Aitarekin hitzegin dutela eta gertatzen zaionak axola ez diola esaten diote. Beraiekin kolaboratu ezean neskalaguna atxilotuko dutela diote.

Galdeketa batean zorabio antzeko zerbait sentitzen du, baina ez du konorterik galtzen. Mehatxu egiten diote epailearen aurrean dena ukatuz gero polizia nazionalak min handiagoa eragingo diola esanez. Errepresalien beldur eta Entzutegi nazionalera erabat suntsiturik heldu zenez, deklarazio poliziala berretsi zuen. Ezarri zioten ofiziozko abokatuak baiezkoa eman zion fiskalak eskatutako gartzela zigorrari.

28ª Lorenzo Quintela, Iñaki

jaiotze data	
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Abokaturik gabeko galdeketak etengabeak dira (gutxi gora behera sei edo zazpi eta nahiko luzeak). Hauetan zutik egotera behartzen dute, hormaren ertz batean. Burua makurturik mantendu behar du, ertzainei begiratu gabe, hauek kaputxaturik joan arren. Objektu makatzaile batez kolpeak ematen dituzte paretaren kontra intimidatzeko asmoz.

Mehatxu eta presioek ez dute bukaerarik, batez ere neskalaguna Guardia Zibilak atxilotu dutela esaten diotenean. Gorputz polizial honek atxilotuekiko izaten duen portaeraz egiten dute farre, batez ere emakumeekiko izaten dutenaz. Neskalagunak jasoko duen tratuaren erantzukizuna berea dela esaten diote. Deklaratuz gero Guardia Zibilek epailearen esku utziko dutela esaten diote, edo bestela inkomunikaturik jarraituko duela. Neskalagunaren atxiloketaren gaiari ekiten diote. Galdeketek aurrera egin ahala, umiliazio, iseka eta irainak gehitzen doaz. Oihu eta mehatxuak gehituz doaz. Urduri jartzen den une batean esertzen uzten diote. Aldameneko geletako garrasiak entzuten ditu.

Aztertzen duen forentsearen aurrean jasotzen ari den tratua salatzen du, presio psikologikoak alegia. Deklarazio judiziala egiterakoan salaketa egiten du berriz. Ofiziozko abokatuak bere atxekimendua agertzen dio fiskalak eskatutako kartzela zigorrari, kar-tzelaratzea eskatuz.

29ª	Aranburu, Gotzon
jaiotze data	24 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Identifikatzen den mementuan hasten dira kolpekatzen, sakatzen, oihukatzen eta Guardia Zibilaren eskuetan utziko dutela mehatxatzen. Etxetik komisaldegirako bidaian burua hanka artean duela joatera behartzen dute, atzekaldean eskuburdindurik izateaz gain. Buruaren gainetik bi jaka jartzen dizkiote, itomen sentsazio larria sortuz.

Abokaturik gabeko itaunketetan, zazpi-zortzi ertzain inguru daude berarekin, beti ere jotzen, sakatzen eta mehatxatzen. Galdeketak gutxi gora bost ordutan zehar luzatzen dira. Hauetako batean kontrola galdu eta bere burua mintzen du hormaren kontra joaz, eta bere buruari zauriak eraginez. Aldameneko geletatik datozen garrasiak entzuten ditu.

Ziegan dagoenean ez diote atseden hartzen uzten, uneoro bait doaz ertzainak bertara gogaitzera. Oihukatu eta mehatxatzen dute. Horrez gain, ertzainen bat hurbildu edo lehiatila zabaltzen duten bakoitzean zutitu eta hormari begiratu behar dio. Beraz, inkomunikaturik duten bost egunetan ezin dezake ia lorik egin.

Madrilerako bidaia furgoneta batean egiten du, barrukaldean ziegatan banatuta dagoena sakakaden artean sartuz. Burua hanka artean makurturik eta eskuburdinez loturik egin behar du. Oso latza egin zitzaion. Entzutegi Nazionalera iristean, Polizia Nazionalen esku uztean, honela esaten diote: “Orain dator, oilarra, harroputza”.

Aitorpen judizialean ertzainek egindako galdera berberak egiten dizkiote. Ezeztatu egiten ditu, baina hala ere ofiziozko abokatuak bere gartzeleratzea eskatzen du.

30ª	Aira Urruzola, Urtzi
jaiotze data	17 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/04/27
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Hasierako unetik hasi zitzaizkion mehatxatzen: “Ikusiko duzu zer daukazun zai, flipatuko duzu”. Komisaldegira eramateko autoan sartzen dutenean, eskuburdinak jartzen dizkiote bizkarrean, burua hanka artean eramatera behartzeaz gain. Kaskarreko pare bat ematen dizkiote burua ahalik eta makurren eraman dezan.

Galdeketa ilegal ugari egiten dizkiote. Guztietan hormari begira egon behar du, eskuburdinez eta burumakur. Milimetro bat mugituz gero, jo egiten dute. Itaunketetan bi ertzain hurbiltzen zaizkio, biak batera oihuka, bakoitza alderdi batetatik. Hauetako batean zorabio antzeko zerbait sentitzen du, baina hala ere ertzainek zutitu eta galdeketarekin jarraitzen dute. Kaskarrekoren bat ematen diote, eta ondorioz, burua hormaren kontra jotzen du. Mehatxuak etengabeak dira: Hamar urte igaroko dituela gartzelan, senideei bizi latza egingo dietela, hil egingo dutela, egoera honetatik ateraz gero kalean ikusiko dutela elkar eta jipoituko dutela, lehengo neska laguna atxilotuko zutela, bere amak prostituzioari ekin beharko ziola bien bisitetara joan ahal izateko (bere aita kartzelan baitago)... Putaseme bezalako isekak ere etengabeak dira.

Deklarazio polizialean ertzainek diotena aitortzen du. Ondoren, deklarazio judizialean, aurrekoa berronesten du errepresalien beldur. Ofiziozko abokatuak, fiskalak egindako kartzela eskakizunari oniritzia ematen dio. Deklarazioa egin ondoren berriz ziegetara jaisten duten arte ez da gertatutakoaz ohartzen.

31ª	Alonso, Eneko
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/05/17
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Etxetik atera eta kotxean sartzean hasten dira iseka eta umiliazioak. Burua makurrarazi eta hanka artean jarri arazten diote. Komisaldegira arte jarrera horretan joan behar du, eskuak atzean eta eskuburdinez loturik.
Komisaldegian abokaturik gabeko itaunketa ugari egiten dizkiote. Hauetan ere, eskuburdinez, burumakur eta hormari begira jarraitu behar du. Beraiek nahi dutena aitor dezan, mehatxatu, iraindu eta presionatzen dute.
Senitartekoekin mehatxatzen ari diren batean, berak atzera begiratzen du. Momentu horretan errefortzuak eskatu eta judo kolpe bat egiten diote inmobililizatu eta berriz ere hormari begira jartzeko, burua honen kontra zanpatuz. Galdeketa batean, ertzain batek ttu egiten dio aurpegian, baina ia segidan ertzainak berak garbitzen dio ttua.
Dituen eskubideak irakurtzen diozkiotenean berriz irakurtzeko eskatzen die, ez baititu ulertu. Hauen erantzuna ezezkoa da, ulertu ez baditu bere arazoa dela esanez. Behin baino gehiagotan eskatu behar du janaria. Ziegan dagoela, ertzainek sarritan egiten dituzte bertara sartzeko keinuak, zutitu eta hormari begira jarri behar duelarik.
Bera ikusteko komisaldegira doan batzorde judizialaren aurrean jasotako tratua salatzen du. Batzorde hau, zaintzako epaileak, idazkariak eta mediku forentseak osatzen dute. Bisita honetan adierazitakoa dela eta, salatutako tratu txarren inguruko ikerketa zabaltzen da.

32ª	Zuñiga, Xabier
jaiotze data	18 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/05/17
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Komisaldegirako bidaia osoa bizkarrean eskuburdindurik eta burumakur eraman zuten. Mehatxuak komisaldegira heltzean hasten dira, batez ere senideekin, gurasoekin. Zortzi urte emango dituela kartzelan esaten diote. Isekak ere etengabeak dira.

Egiten dizkioten legez kanpoko galdeketak hiruzpalau orduz luzatzen dira. Hauetan ere, etengabeak dira presio psikologikoak. Zutik iraun behar duenez, lur jota bukatzen du. Batzuetan negar egiten du. Ertzainek berarekin salbuespen bat egingo dutela esaten diote, lagundu egingo diotela. Polizia on eta txarraren taktika erabiltzen dute. Azkenean bere konfidantza irabazi eta beraiek nahi duten aitorpen poliziala burutzen du.

Forentseak bisitatzen duenean, jasandako presioak salatzen ditu. Presioengatik eta errepresalien beldur, deklarazio judizialean, egindako aitorpen poliziala onesten du.

Madrilerako bidaia furgoneta batetan egiten du, barruko aldean ziega ezberdinetan banandua dagoena. Bidaia guztian zehar, burua hanka artean makurturik eta eskuburdinez egin behar du.

33ª	Apaolaza, Iratxe
jaiotze data	
sexua	Emakumea
atxilotze data	2000/05/17
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Atxilotzean, Oiartzungo komisaldegira eramaten dute, bidaia oso luzea egiten ziolarik. Behin bertara helduta, kotxean izaten dute denbora batez.

Hasiera batean berarekin hiru ertzain daude, oso haserre daudenak, bere lagun bat atxilotzera joan direla esaten diote baina erratu egin direla.

Egiten dizkioten galdeketetan etengabeak dira mehatxu eta presioak. Isekak ere ugariak dira, hala nola “borrego"... Ertzain bikote bat dago berarekin beste egun batean, eta “ni ezer ez banintz bezala tratatzen ninduten” bere esanetan. Ziegan sartzen diren bakoitzen hormaren kontra zutitu behar du. Denbora guztian ziegako argia piztuta zegoen. Batez ere lagun eta senideekin presionatzen dute. Bogarren eguna oso egun gogorra egiten zaio, eta denbora guztia negarrez ematen du.

Madrilerako bidaia kaiolak dituen furgoneta batean egiten du. Bidaia osoa burumakur egotera behartzen dute.

34ª	Barrenetxea, Ander
jaiotze data	
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/05/17
atxilotze lekua	Comisaria Oiartzun.
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Aske
salaketa	

Ertzainak etxera doazenean bera ez dago bertan, beraz, hurrengo egunean Ertzaintzako komisaldegira joaten da abokatu baten laguntzarekin, bertan atxilotzen dutelarik. Galtzak eta galtzontziloak eranstera behartzen dute araketa burutzeko.

Abokaturik gabeko galdeketa ugari egiten dizkiote. Hauetan etengabeak dira oihu, familiarenganako mehatxuak, kartzeleratzearekin... izaten duen lehenengo galdeketan, zutik egotera behartzen dute hormaren ertz batean, eta hurrengoetan eserita egon daiteke, bain hormaren kontra. Oihuka hasten dira galdeketak, gero lasaitu egiten dira, berriro oihuka.., dena mehatxuen artean “lana duzu, kartzelara joango zara, badakigu ez duzula ezer egin...". Ezin dezake atsedenik hartu eta ez diote lo egiten uzten kanpoaldeko zarata izugarria baita. Horrez gain, behin baino gehiagotan doaz ziegako atea jotzera.

Nahiz eta deklarazio poliziala egitea ukatu, hau burutzeko gela batetara eramaten dute. Terrorismo delituaz salatzen dutenean, ofiziozko abokatuak akusazioa zehaztu behar dutela esaten diete ertzainei. Une honetan ertzainek gelatik ateratzeko agindua ematen diote abokatuari eta eztabaida baten ondoren berriz sartzen dira.

Madrilerako lekualdaketa kaiola txikietan banaturik dagoen furgoneta batean egiten du. Une oro burua makurturik eraman behar du.

35ª	Apezetxea, Jokin
jaiotze data	17 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/05/17
atxilotze lekua	Hernani
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1 A.N.
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Inkomunikaturik dagoen epean, abokatuaren presentziarik gabe egiten dizkioten itaunketetan etengabeak dira mehatxu eta presio psikologikoak. Kartzelarekin eta jipoiekin mehatxatzen dute. Zutik egon beharra dauka. Asko dira egiten dizkioten galderak, ugariak dira baita ere mehatxu, gezur, iseka... Ezin die ertzainei aurpegira begiratu, nahiz eta kaputxarekin dauden. Ez diote jotzen, baina psikologikoki oso latza egiten zaio, galderak denak jarraian ziren, behin eta berriro galdera berdinak...

Ziegan dagoenean ia ezin du lorik egin, argia denbora guztian piztuta bait zegoen. Madrilerako bidaia furgoneta batean egiten du, txapazko eserleku batean, laban eginez, eta burua makurtuta eraman behar duelarik. Ertzainek ez diote jaramonik egiten bidaia osoan.

36ª	Aranburu Goikoetxea, Aritz
jaiotze data	26 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/05/26
atxilotze lekua	Estatu frantsesa
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	polizia frantsesa
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Atxiloketaren unean, 15 bat metrotan zehar narraz eramaten dute, belaun eta eskuturrean min hartuz. Epailearen aurrean jasotako tratu txarrak salatzen ditu.

37ª	Geresta Azurmendi, Ander
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	2000/05/26
atxilotze lekua	Estatu frantsesa
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia frantsesa
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Aurpegian eta bularrean kolpekatzen dute. Kolpeen ondorioz, deklarazioa egiteko unean begi bat handiturik dauka. Epailearen aurrean tratu txarrak salatzen ditu.

38ª	Iñigo, Iker
jaiotze data	16 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	31/05/2000
atxilotze lekua	Atarrabia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Deklarazio judiziala egiterakoan kolpe, tratu txar, mehatxu eta galdeketa ilegalak salatzen ditu.

39ª	Goñi, Sergio
jaiotze data	22 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	31/05/2000
atxilotze lekua	Atarrabia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Epailearen aurrean atxiloketaren unean jasandako legez kontrako galdeketak salatzen ditu.

40ª Domezain Artola, Aitor

jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	14/06/2000
atxilotze lekua	Donostia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxiloketaren unean polizietako batek metraileta bat jartzen dio bularrean. Mehatxuak etxetik komisaldegirako tartean hasten dira. Komisaldegira heltzean "flipatuko" duela esaten diote. Ibilbide osoa burumakur eta jertsearen txanoa buruan jarrita joan behar du.

Komisaldegira heldu bezain laster hasten dira abokaturik gabeko galdeketak. Kolpeak hasten dira, mehatxuek jarraitzen duten bitartean, batez ere familiarekiko: Bizia laztuko dietela senideei, arrebari jarraipena egingo diotela eta motorretik botako dutela, bere amona oso zaharra dela eta hil ala biziko izualdia emango diotela, bera mendira eraman, biluztu, zuhaitz batetara lotu eta bertan hitzegingo dutela...

Galdeketetan hormari begira egon behar du, zutik. Behin baino gehiagotan heltzen diote burua gelan dagoen armairu baten aurka zanpatuz. Burutik heldu eta makurrarazi egiten dute, polizietako batek barrabil eta izterrak kolpekatzen dizkion bitartean.

Madrileko komisaldegira lekualdatzen dute, kolpe eta mehatxuek bertan izanik jarraipena.

Uneoro ahul eta arraro sentitzen da, edarian zerbait bota diotelaren susmoa izanik, ez baitu inkomunikaturik egon den hiru egunetan ezertxo ere jan.

41ª	Astigarraga, Joxean
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	14/06/2000
atxilotze lekua	Donostia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxiloketaren unean eskopeta batez apuntatzen dute, lurrera jaurti eta gainean ezarriz, mehatxu eta oihuen artean, eskuburdinak jartzen dizkiote. Etxetik ateratzean ostikada eta kolpeak ematen dizkiote. Kotxean egiten duten ibilbidean mendira eraman eta tiro bat ematearekin mehatxatzen dute. Bere anaia gaztea ere atxiloturik dagoela esaten diote, eta beraiek nahi dutena esaten baldin badu askatuko dutela, gurasoak oso gaizki baitaude...

Madrileko komisaldegian denbora agortu zaiola eta aurrerantzean oso gaizki pasatuko duela esaten diote. Hiru polizia ditu atzean, buruan kolpeak emanez, beste bat galdekatzen ari zaion artean, gorputz osoa kolperik utzi gabe jipoituko diola esanez.

Beste atxilotu baten oihuak entzuten ditu. Gainontzekoak bera baino txarrago daudela baina berari ere txanda iritsiko zaiola esaten diote. Bi egunetan zehar kolpeak ez dira bukatzen. Nahi dutena aitortzen duenean tratua bigundu egiten da.

Deklarazio judiziala egitean epaileari esaten dio aitormen poliziala mehatxu eta torturen artean egin duela. Epailea oihuka hasten zaio ikastera behartu duten esaten.

42ª	Rodriguez Aldanondo, Lartaun
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	14/06/2000
atxilotze lekua	Donostia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Etxetik atera bezain laster hasten dira mehatxuak: Ikusiko duzu bakarrik geratzen garen unean... Komisaldegirako ibilbidean poliziak nabarmeki haserreturik doaz (miaketa ordena sinatu ez duelako uste du) eta iletik heltzen diote burua makurtzeko oihukatzen dioten bitartean. Mendira eraman eta tiro bi ematearekin mehatxatzen dute.

Komisaldegian abokaturik gabeko galdeketak hasten dira. Kaskarrekoak ematen dizkiote, belarrondokoak. Belauniko egotera behartzen dute polizietako bat gainean esertzen zaion bitartean. Kokoriko egoteko ere agintzen diote eta leher eginda dagoenean lurrera jaurti eta hasierako jarrera hartzera behartzen dute. Flexioak egitera derrigortzen dute, polizietako batek bere oina barrabilen azpian eta boligrafo bat ipurzuloan jartzen dituen artean. Bitartean iraindu egiten du “atzelaria da eta ziur gustokoa duela” esanez. “Bainontzia” egitearekin mehatxatzen dute, txorrota baten soinua entzuten delarik.

Lau orduz luzatzen den Madrilerako bidaia burua makurturik egin behar du. Madrileko komisaldegian mehatxu eta kolpe berberek jarraitzen dute. Deklarazio poliziala ikastera behartzen dute.

Mediku forentsearen aurrean salatzen du jasotzen ari den tratua.
Epailearen aurrean deklarazio poliziala torturak direla medio burutu duela salatzen du, ikastera behartu dutela. Epaileak gauzak ikasteko memoria handia duela dio ironiaz.

43ª	Abanda Pagola, Aitor
jaiotze data	24 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	14/06/2000
atxilotze lekua	Donostia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3 A.N.
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Etxean tratua biguna da, baina gogortu egiten da komisaldegirantz abiatzean. Eskuak bizkarrean loturik eramaten dute, burumakur. Orduan hasten dira mehatxuak: “Ikusiko duzu orain, ohartuko zara, zerbait handia datorkizu, bukaerarik gabeko hiru egun egingo zaizkizu. Burua altxatuz gero ohartuko zara, putaseme...”

Abokatuaren presentziarik gabeko galdeketa ugari egiten dizkiote, ordu luzez zutik egon behar duelarik. Oihukatzen dute, jo, etengabeak dira mehatxuak... Gela batetik bestera aldatzeko, ia narraz eramaten dute.

Madrilerako lekualdatzea burumakur egiten du, edonon euskarritzea debekatuz. Komisaldegi madrildarrean tratu txarren jarraipena dute. Galdekatzeko bere bila doazen batean, horman sostengaturik aurkitzen dute, zorabiaturik, azter dezan mediku forentseari deituz.

Deklarazio judizialen aitorpen poliziala presio bortitz eta mehatxuen artean burutu duela dio, epaileak oihukatuz honela erantzunez: “Beraz, zer? Guzti hau asmatu egin duzu?”. Deklaratzen dagoela zorabiatu eta Samur-era (Servicio de Asistencia Médica Urgente) deitu beharra dute azter dezaten.

44ª	Mendizabal, Garikoitz
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	14/06/2000
atxilotze lekua	Donostia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3 A.N.
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Hasiera batetik burumakur joan behar dutela esaten diote poliziek. Komisaldegirako ibilbide osoa burua hanka tartean duela egiten du, polizietako batek gehiago makur dadin buruan joz. Une honetan hasten dira komisaldegian jarraipena duten mehatxuak: autoko atea ireki eta istriputzat joaz bertatik botako dutela, komisaldegian txarrena iritsiko dela, hildakoak dituen jendeak hitzegitea lortu dutela, bera bezalako “cerillero” batek hitzegitea oso zaila izango ez dela, neskalaguna atxilotu eta bortxatuko dutela, gauean ziegara joan eta “ipurdia edozelan utziko diote oso polita baita” esaten diote, “bainuontzia” egingo diotela... Galdeketa batean kable batzuk erakusten dizkiote. Polizia batek tortura metodo berri bat duela kontatzen dio, hain zuzen ere barrabilak hatzamarrekin heldu eta markarik utzi gabe bihurritzea. Horrez gain, modu horretan denbora luzeena iraun duen pertsonak hiru minutu jasan zituela gaineratzen dio.

Abokaturik gabeko galdeketa ugari eta etengabeak jasaten ditu. Hauetan, ordu luzez zutik, kokoriko, egotera behartzen dute, burua errementatuko dioten galdetzen dioten bitartean. Itaunketak bigunagoak dira batzutan eta latzagoak bestetan.

Gau batean, ziegan dagoela, polizia bat hurbildu eta ziega erdian hormari begira eta jauzika jartzera derrigortzen du. Zazpi edo zortzi bat aldiz egoera errepikatzea agin-tzen dio.

45ª	Iruretagoiena Mujika, Gorka
jaiotze data	20 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	14/06/2000
atxilotze lekua	Donostia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3 A.N.
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Etxetik komisaldegirako tartean auto barruan etzundurik daramate, gorputz osoan zehar zapaldu eta kolpatzen duten bitartean. Komisaldegira heltzean zein gaizki pasatuko duen azaltzen diote.

Abokaturik gabe egiten dioten itaunketetan etengabeak dira bera eta neskalagunaren aurkako mehatxuak: “Hau ez da ezer izan, gogorrena Madrilen hasiko da, ikusiko duzu”. “Neskalaguna bortxatuko dugu. Oso erraz daukagu, eta ez zaitez oilartu zu izorratzeko erraz bait daukagu dena”. “Honetatik libratuz gero familia hondatuko dizugu, lanetik bota ditzatela lortuko dugu...” Jo eta lurrera botatzen dute. Lurrean dagoela ere kolpatzen dute. Galderen bati ezer ez dakiela erantzunez gero, gehiago jipoitzen dute. Galdekatzen ari diren bitartean zauria zuen hatzamar batean (oso ebaki sakona zuen eta hatzamarra azalik gabe) presioa egiten diote, minaren minaz ia konortea galdu arte.

Madrilerako ibiltartea eskuburdinez egiten du, eta gidakideak eserlekua atzerantz eramanda duenez, ez du lekurik ia. Jertsea burutik eta forro polarra goraino loturik jartzen dizkiote. Burua hanka tartean bildurik eraman behar du.

Burutzen duen deklarazio poliziala ikastera behartzen dute, baina ondoren ez du hau sinatzen. Une honetan tratua latzagoa egiten da. Poliziak ostikadak eman eta mehatxzeko ziegan sartzen dira, eta epailearen aurrean ikasitakoa aitortuko duela sin egitera derrigortzen dute.

46ª Sádaba García, Javier

jaiotze data	25 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	04/07/2000
atxilotze lekua	Girona
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Komisaldegirako bidean kolpatu egiten dute. Komisaldegian ere kolpeek jarraitu egiten dute.

47ª	Gartzia Urbieta, Gaizka
jaiotze data	22 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	05/07/2000
atxilotze lekua	Oiartzun.
atxiloketa mota	Komunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Komisaldegira heltzean arropak erantsi eta galtzontzilo hutsetan dagoela arakatu egiten dute.

Legez kanpoko galdeketa ugari egiten dizkiote. Hauetan, denbora luzez, hormari begira, burumakur eta eskuak atzean egon behar du. Oihukatu, iraindu eta mehatxatzen dute. Intimidatzeko asmoz kolpeak ematen dituzte mahai gainean edota hormaren kontra. Mehatxuak etengabeak dira: “17 urte emango dituzunez kartzelan, zure lagun guztiek larrutan egingo dute neskalagunarekin, eta zuk “moro” bat izango duzu gartzelan ipurditik eman diezazun”. “Egia esanez gero ez dugu atsedenik hartuko”. “Kristoren “marroia” sartu dizugu...” Kaskarreko ugari ere ematen dizkiote.

Hormaren kontra dutenean, zorabio antzeko zerbait sentitzen du, baina ez erortzen. Zorabioaren arrazoia denbora luzez zutik egon eta indar handiko foko handi batzuek eragiten zuten beroa ziren. Nekea zela eta horman atseden hartzen zuen bakoitzean, zer egiten zuen oihukatzen zioten, lehengo jarrera hartzera behartuz.

Hiru egunetan zehar birritan ematen diote jaten eta edateko ezer ere ez.

48ª	Martínez Pérez, Leire
jaiotze data	22 urte
sexua	Emakumea
atxilotze data	26/07/2000
atxilotze lekua	Mexicotik entregatua
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Aireportura heltzean, aztertzen duen sendagileak bihotzeko gutxiegitasun bat somatzen du, brakikardia, arritmia, Leirek asma izateaz gain. Nahiz eta faktore guzti hauek polizien keinua aldatu, ez zuten ospitale batera eramaten. Bere bihotza indarberri zedin atseden hartzen utzi beharrean, legez kanpoko galdeketa ugari egin zizkioten, mehatxu eta tratu fisiko txarrak sofrituz. Indar handiko foko batzuen pean, ordu luzez iraun behar du zutik, ezintasun fisikoa bilatuz. Bigarren mailara igarotzearekin mehatxatzen dute, jasan ezingo duen terapia gogor batetara alegia.

Itaunketak oso luzeak dira eta ez diote atsedenik hartzeko betarik uzten ia. Familia eta bizirik aterako ez zen kartzelaren inguruko mehatxuak etengabeak dira.

Erortzen zen bakoitzean “valeriana” pilulak eta ura ematen zioten.

49ª	Pla, David
jaiotze data	28 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	27/07/2000
atxilotze lekua	Zaragoza
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxilotzen duten unean pistola bat jartzen diote buruan, mugituz gero bi tiro emango dizkiotela esanez batera.
Komisaldegian, etengabeak dira jasan behar dituen galdeketak. Hauetan neskalaguna eta torturen inguruko mehatxuak ("poltsa", “elektrodoak") pairatu behar ditu. Bera eta kidea desagertaraziko dituztela esaten diote, inork ez dakielako atxilotuta daudela. Polizietako batek kartzelatik irtetzean hilko dutela diotso, baimena izanez gero une horretan hilko zuela gaineratuz. Etengabe kolpatzen dute buru, belarri, giltzurrun, barrabil eta sabelean. Madrilerako ibilbidean zehar lasai hitzegiteko toki izkutu asko dagoela esaten diote. Bidaian zehar gelditzeko itxurak egiten dituzte.
Galdeketetan fisikoki lehertu asmoz, ordu luzez zutik egotera behartzen dute. Batzutan esku zabalik, hanka bat altxatuta egon behar du. Bestetan aldiz, kokoriko esku zabalik, lehertu arte egotera behartzen dute. Erortzean ostikada eta kolpeen bidez zutitzeko agintzen diote. Beraien galderak erantzuten ez dituen bakoitzean, kaskarreko bat ematen diote, galdera bakoitzeko kolpe bat alegia. Itaunketa guztietan, fisikoki lehertzeko asmoz, erabiltzen duten sistema berdina da.
Beraiekin kolaboratzea eskaintzen diote, dirua ere eskainiz. Forentsearen aurrean tratu txarrak salatzen ditu.

50ª Lorente, Aitor

jaiotze data	28 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	27/07/2000
atxilotze lekua	Zaragoza
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Jasandako ez legezko itaunketetan zehaztu ezinezko kolpe kopurua jaso zuen buru, belarri (hauek bereziki ezatseginak dira eta zorabio zentzazioa sortzen dute), barrabiletan. Ukabilkadak ere eman zizkioten bularrean. Bi ha-tzamar sartzen dizkiote belarrian, zainek lehertzearen zentzazioa eta izugarrizko mina sortaraziz. Fisikoki lehertarazteko asmoz mota guztietako flexio eta ariketa fisikoak egitera behartzen dute.

Lehen egunean galdeketa batean konortea galtzen du. Inurriketa sentitzen du besoan. Ondoren ziztadak eta mina sentitzen ditu bularrean, arnas hartzeko ezintasunaz gain. Suhiltzaileen unitate mugikorrari deitzen diote azter dezan, eta elektrokardiograma egin eta tentsioa eta pultsua hartu ondoren bihotzeko murmurioa duela erabakitzen dute, “ez da ezer gertatzen, ondo zaude, gainera hemen ondo tratatzen zaituzte, ezta?” esanez.

Galdeketetan biluztu eta flexioak egitera beharturik dago, mesprezu eta irainez “Zein espektakulu negargarria” dioten bitartean. Kokoriko ibiltzera derrigortzen dute. Itaunketa batean metalezko gauza bi jartzen dizkiote lepoan, korronte elektrikoa baino ez dela falta gaineratuz.

Mehatxuak etengabeak dira: “Hitzegiten ez baduzu mendira eramango zaitugu eta dena kontatuko duzu”. “Madrilen konta ditzakezun baino hostia gehiago emango dizute eta bazkalburu gisa ukabila sartuko dizute ipurtzulotik...” Madrilerako lekualdatzean buruan kolpeak ematen dizkiotenez, ez diote loak hartzen uzten. Komisaldegian bisitatzen duen sendagile forentsearen aurrean tratu txarrak salatzen ditu eta epaitegian honek modu honetan erantzuten dio: “Ba, dirudienez ez dizute oso gogor jo, ia ez bait duzu markarik eta.”

51ª	Gomez, Oier
jaiotze data	17 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	09/08/2000
atxilotze lekua	Gasteiz
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Atxiloketaren unean, ertzainek oihukatzen diote; “honi su eman beharko genioke, orain Guardia Zibila dator eta bere esku utzi beharko genuke".

Komisaldegian ematen dituen hiru egunetan ez legezko bi galdeketa egiten dizkiote beraiek nahi dutena aitor dezan zuzenean presionatzen dutelarik. Ertzainek polizia “on” eta “txarraren” jokoa erabiltzen dute. Polizia txarrak Madrila eraman eta kartzeleratzeaz mehatxatzen du, “moroek ipurditik emango dizute” esateaz gain. Polizia onak berriz, komisaldegian deklaratuz gero deklarazio judiziala Gasteizen egingo duela esaten dio. Galdeketetan dauden ertzainek, bata zuriak daramatzate jantzita, medikuek erabiltzen dutenen antzekoak, latexko eskularruak eta buruan kaputxa.

Ziegan dagoenean ertzainen ahotsak entzuten ditu. Beraien artean ari dira, baina ozen, berak entzun dezan. “Bainuontzia” prest dagoen galdetzen dute, Guardia Zibilen esku uztean ikusiko duela esaten dute. Behin baino gehiagotan hurbiltzen dira ertzainak ziegara loak hartzen ez utziz. Guardia aldaketetan bera zegoen ziegara hurbiltzen ziren ertzain asko, batzuk ateko leihatilatik begiratu baino ez zuten egiten, baina beste batzuek ordea, gauzak esaten zizkioten.

Gauetan, ziegan, haize egokitua hotzean jartzen zuten, eta egunez, galdeketetan, haize beroa, burukomina eta larritasuna sortuz.

52ª	Aiestaran, Aritz
jaiotze data	16 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	11/08/2000
atxilotze lekua	Donostia
atxiloketa mota	Komunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	
egoera	Aske
salaketa	

Atxiloketaren unea, nahiko bortitza da, taberna batean atxilotzen dute eta kanpoaldean istiluak daudenez, bertatik ateratzeko, ezkutu bezala jar erazten baitute.

Komisaldegira heltzean arakatzeko asmoz biluztu egiten dute. Hanka bat altxatzeko esaten diote ipurtzuloa miatzeko, ikutzen ez dioten arren. Garzon epailearen esku utziko dutela adierazten diote, “honek enmarronatuko baitzaitu". “Kartzelan ipurdia honela jarriko dizute” esaten diote eskuekin keinu bat eginez. Familiarekin ere mehatxatzen dute. Etengabe lurrari begira egon behar dutela esaten diote, ezin diela begiratu. Burua igotzen duen batean, kolpekatu egiten dute.

Ziegan dagoenean, ertzainak joan eta puta semea dela eta iruzurra egin diotela esaten diote. Ez diote uzten atseden hartzen. Ziegan dagoen bitartean, argia piztuta dago. Bertan ematen duen lehen gauean, ez diote mantarik ematen, hotz asko pasatzen duelarik. Komunera edo galdeketa egitera eramaten duten bakoitzean, sakakaden artean egiten dute.

Sendagile forentse batek azter dezan eskatzen du, baina zertarako behar duen galdetzen diote. Azkenean, ertzainetako batek beranduago etorriko dela esaten dio. Ez da sendagilerik hurbiltzen. Epailearen aurrera eraman baino lehen ez diote garbitzen ezta familiak eramandako arropa janzten uzten.

53ª	García, Jordi
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	10/09/2000
atxilotze lekua	Donostia
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Taberna batean atxilotzen dute, eta kanpoan istiluak daudenez, ezkutu bezala jarriz ateratzen dute, eskumuturrez eta ertzainen borra lepoan duela. Bulego polizialetan sartzen duten lehen momentutik lurrera begiratu dezan egintzen diote. Bulego polizialetara eramaten duten lehenengo gauean, ziegan sartu eta ertzainetako batek hormari begira zutik egotea agintzen dio. Gau osoan zehar mantentzen dute egoera honetan, gutxi gora behera 10 orduz hain zuzen ere. Ertzainak ateak duen leihatilatik begiratzen zuten eta agindutako posizioan aurkitzen ez bazuten, iraintzen hasten ziren.Egiten dizkioten galdeketa ez legaletan etengabeak dira mehatxuak, hala nola kartzeleratuko dutela, neskalaguna eta arrebak atxilotuko dituztela... Beraiek nahi dutena aitortzen ez baldin badu fusilatuko dutela ohartarazten dute.

Esku osoaz ematen dizkiote kolpeak buruko atzekaldean behin baino gehiagotan, poliziek adierazten dizkioten erantzunak ematen ez dituenean alegia. Umiliatu eta iraindu egiten dute.

Ziegan dagoenean bero asko pasatzen du, baina gero galdeketak egiten dioten gelan hotza pasa-tzen du, aire egokitu hotza jarrita baitago, larrituz.

Aitorpen judiziala egiten dagoenean, jasandako tratua salatzen du. Bere abokatuak epaileari galdetzen dio ea ekintza hauengatik ikerketarik hasiko den, baina honek ezezko erantzuna ematen dio, horretarako salaketa era formalean tarteratu behar dela esaten baitio.

54ª	Atxabal, Asier
jaiotze data	25 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	12/08/2000
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	
egoera	Aske
salaketa	

Abokaturik gabeko ez legezko galdeketak egiten dizkiote. Hauetan etengabeak dira jasan behar dituen presio psikologikoak.

55ª	Karro, Jon
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	12/08/2000
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Abokaturik gabeko lau galdeketa pairatu behar ditu, non kartzeleratzearen mehatxuak, Entzutegi Nazionalean torturatuko dutenaren mehatxua, kartzelatik 40 urtekin aterako denaren mehatxuak, presio psikolojiko era irainak ("A ze gudari korotza") etengabeak diren.

Esku zabalik hormari begira eta zutik egotera behartzen dute, eskuak gurutzatuz gero jipoituko dutela esaten dioten bitartean. Horrela egotera behartzen dute indargetzeraino.

Ziegan dagoelarik, argia pizturik mantentzen dute, loak hartzea ezinezkoa eginez.

Mediku forentsearen aurrean jasaten ari den tratua salatzen du.

56ª	Amaro, Oskar
jaiotze data	24 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	12/08/2000
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Abokaturik gabeko lau galdeketa pairatu behar ditu, jasaten dituen lehenengoak besteak baino luzeagoak izanez. Hauetan, presio eta mehatxuak jasaten ditu, familiarekin mehatxuak, lanarekin... . Hauetako batean oso urduri jarri eta itauntzen ari zen ertzain bati deklaratuko ez zuela adierazi zion, ziegara eramateko eskatuz. Honek galdekastzen jarraitu zuen. Gehiago urduritUz, haietako batengana hurbildu eta lurrera bota zuten garondoan kolpekatu zutelarik. Ospitalera eraman behar izan zuten, non lasaigarri bat eman zioten. Momentu horretatik aurrera, tratua lasaiagoa da.

57ª	Zestau Aranibar, Eneko
jaiotze data	21 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	15/08/2000
atxilotze lekua	Iruñea
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Udaltzainek polizia nazionalen komisaldegitik alde egin bezain laster, polizia batzuek ileetatik heldu eta mehatxu eta iseken artean narraz eramaten dute gela batetara. Abokaturik gabeko galdeketak konstanteak dira. Iraintzen dute. Eskuekin eta telefono gida antzeko zerbaitekin kolpeka-tzen dute. Zarama poltsak jartzen dizkiote buruan, arnasa hartzea ezinduz. Hasiera batean eskuekin puskatzen ditu poltsok, baina ondoren, haginekin apurtu behar ditu, eskuak eusten baitizkiote. Poltsa seipabost aldiz ezartzen diote.

Barrabiletan jotzen diote. Polizia batek “hementxe bertan hilko dut” dio, pistola buruan jartzen dioten bitartean. Galdeketetako batean esku, bular eta oinak lotzen dizkiote aulki batetara. Galtzak eta galtzontziloak erantsi eta zerbait jartzen diote ernaltze organoetako biloan, elektrodoak direla esanez. Ezin dezake zer den ikusi, begiak komuneko paperaz estalirik baititu.

Beste batean, gelako argia itzali eta hormari begira zutik jartzen dute, modu honetara orduetan zehar egotera behartuz, beti ere etengabeko galderen artean. Aztertzera doan sendagile forentsearen aurrean tratu txarrak salatzen ditu.

58ª	Resano Aranibar, Xabier
jaiotze data	18 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	15/08/2000
atxilotze lekua	Iruñea
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

"Hijo de puta, me cago en tu puta madre..." gisako irainak konstantean dira. Buruan kolpekatzen dute. Polizia batek, pistota ateratzeko keinua eginez, hil egingo duela esaten dio. Beranduago, labana jartzen diote sudurrean, eta indarra eginez hilko dutela esaten diote.

Mehatxuak etengabeak dira, hala nola hilko dutela, neskalaguna atxilotuko zutela, elektrodoak eta bainuontzia ezarriko dizkiotela, komisaldegiko hormak bere buruaz botako dituztela, kartzelara joango dela...

Ziegako atea ireki eta polizia batek ihes egin dezakeela esaten dio, baina ihes eginez gero tiro bi emango dizkiola diotso. Pistola bi dituela eta tiroketa bat izan dela esateko bietako bat eskuetan jarriko diola azpimarratzen du poliziak.

59ª	Beloki Ortuzar, Ibon
jaiotze data	27 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	21/08/2000
atxilotze lekua	Durango
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1. A.N.
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Atxilotzen duten unean bertan ematen diete hasiera mehatxuei: “Beste oihu bat eta hilko zaitut, putasemea”. “Ez niri aurpegira begiratu, hilko bait zaitut...”

Egiten dizkiotengaldeketak, gutxi gora behera hamar edo hamabi, ezberdinak dira itauntzen duten ertzainen arabera. Batetik, batzuek onaren papera egiten dute, beraiek laguntzeko daudela esanez. Bestetik, ordea, beste ertzain batzuek txarren papera hartzen dute, irain, presio eta mehatxuen bidez.

Abokatuaren presentziarik gabe egiten dizkioten galdeketetan presio handia jasan beharra dauka, guztia buka dadin burua hormaren kontra kolpatuz min ematea pentsatzera iritsiz. Taigabeak dira mehatxu, irain eta oihuak. Horrenbeste sofrimendu sortzeko gai den pertsonarik esistitzen ez zela uste zuela dio.

Komisaldegian ematen duen denboran ez diote ia lorik egiten uzten, behin baino gehiagotan baitoaz poliziak ziegara bera molestatzeko asmoz.

Epileptikoa izaki, sendagaiak hartzeari uko egiten dio, drogatuko duten beldurrez ez baitu lehenengo hiru egunetan ezer ere jaten.

60ª Garitaonaidia Ansuategi, Iker

jaiotze data	32 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	19/08/2000
atxilotze lekua	Arrasate
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1. A.N.
egoera	Aske
salaketa	

Abokaturik gabeko galdeketa ugari pairatzen ditu. Kartzeleratzearekin egiten diote mehatxu, “Ateratzen zarenean, 20 egongo zarenez, alabak ez zaitu ezagutuko eta neskalaguna beste bakin liatu eta ez zaitu kartzelan bisitatuko..." esanez. Neskalaguna eta hilabeteko alaba atxilotuko dituztela ere esaten diote, izan ere bera atxilotzeko etxera joatean biak eramaten baitituzte komisaldegira, bertan atxikituz ordu batzuz. Galdeketetan Guardia Zibilak atxilotu dituela sinestarazi nahi diote, eta hauekin telefonoz aritzearen keinua eginez, honela hitzegiten dute: “Gelditu Ester Unzuetarena, hitzegiten hasiko dela dirudi eta”.
Atxiloturik dagoen egunetan zehar ez diote lorik egiten uzten, itaunketak konstanteak baitira.

61ª	Simón Cebrián, Montse
jaiotze data	32 urte
sexua	Emakumea
atxilotze data	21/08/2000
atxilotze lekua	Lasarte
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Ertzaintza
epaitegia	JCI nº 1. A.N.
egoera	Aske
salaketa	

Egun bat soilik ematen du komisaldegian, apendizitis batek jota ospitaleratu behar baitute. Hala ere, egun horretan zehar etengabe ari dira galdekatzen, eta ez diote atseden hartzen uzten. Mehatxu, irain, iseka eta umiliazioak pairatu behar ditu.

Ospitalean, uneoro dago ertzain ezberdinez zainduta. Ertzainaren arabera, jasozten duen tratua aldatu egiten da. Gau askotan ez diote lorik egiten uzten argia pizten baitute. Honela, ezin du atsedenik hartu, erreposoa ezinezkoa eginik.

Ospitaletik irtetzean, epailearengana eraman aurretik, Langraitzeko kartzelara eramaten dute, eta ondoren Soto del Realera.

62ª Urteaga Ardoia, Gorka

jaiotze data	18 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	20/09/2000
atxilotze lekua	Bakaiku
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Guardia Civil
epaitegia	JCI nº 2. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Madrila eramateko autoan sartzean hasten dira mehatxuak, kotxetik jaurtiko dutela esanez.

Madrilen, abokaturik gabeko galdeketa ugari egiten dizkiote. Lehenengo momentutik begiak estaltzen dizkiote ezer ikus ez dezan. Itaunketa batean, pistola bat eskuan jarri eta bere burua errugabetzat joz gero, pistolan bere aztarnak dituztenez talde armatuaren kide izateaz salatuko dutela esaten diote. Tortura metodo ezberdinez ere mehatxatzen dute, “poltsa” esate baterako. Galtza zein galtzontziloak erantsiz elektrodoak jartzearekin egiten diote mehatxu. Epailearen aurrean tratu txarrak salatuz gero komisaldegira bueltatuko dela azpimarratzen diote. Itaunketetan kaskarrekoak etengabean ematen dizkiote.

Ordu edo ordu eta erdiz, paretari begira egotera behatzen dute ziegan. Lehenago ere beste bi orduz eduki dute egoera horretan.

63ª	Urteaga Ardoia, Iñaki
jaiotze data	24 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	20/09/2000
atxilotze lekua	Bakaiku
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Guardia Civil
epaitegia	JCI nº 2. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Birritan ezarri zioten “poltsa". Kaskarrekoak jaso zituen. Akusatzen zuten gertaerekin harremanik ez zuela aitortu ezean zigor gorena egotziko ziotela adierazi zioten.

Bere abokatuek jasandako tratu txarrak salatzeko denuntzia aurkeztuko dute.

64ª Paskual, Amaia

jaiotze data	30 urte
sexua	Emakumea
atxilotze data	26/09/2000
atxilotze lekua	Orereta
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Aske
salaketa	Ezarria

Atxilotu bezain laster hasten dira mehatxuak. Ageriko leku batetara eramaten dute izutzeko asmoz.
Abokaturik gabeko galdeketetan senide eta kartzelaren inguruko mehatxuak konstanteak dira. Poliziek nahi dutena erantzuten duenean, iletik heldu eta kolpeak ematen dizkiote buruan. Zutitzeko, esertzeko, berriz zutitzeko... agintzen diote, lehertu arte. Tratu iraingarria jasotzen ari den galdeketetako batean, konortea galtzen du. Arnasik hartu ezin dezakeela somatzen du, zorabiatu arte. Konortea berreskuratzen duenean, denbora nahikoa igaro ondoren, ziegan dago. Honen aurrean poliziak pixka bat izutu direla ematen du eta lasaiago uzten dute.
Madrilerako lekualdatzean gidaria aldatzeko gelditzen dute autoa, lehenengoak esaten duenaren arabera beste poliziek behar beste kolpatzen ez zutelako.

65ª	Trecet, Juan
jaiotze data	
sexua	Gizona
atxilotze data	26/09/2000
atxilotze lekua	Lezo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Abokatuaren presentziarik gabe egiten dizkioten itaunketetan etengabeak dira mehatxuak: kartzeleratuko dutela, ama eta arreba atxilotuko dituztela, neskalaguna atxiloturik dagoela, bere esku dagoela azken honi gertatuko zaiona...
Bere abokatuak denuntzia judiziala aurkeztuko dute berehala.

66ª Solana, Jon Igor

jaiotze data	25 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	16/10/2000
atxilotze lekua	Sevilla
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxilotzeko unean pistolarekin jotzen diote buruan, eta ondoren, kotxera sartzeko mementuan, honen kontra zanpatzen diote burua.
Abokaturik gabeko itaunketak taigabeak dira, kolpe, ostiko, ukabilkada ugariren artean, batez ere buru eta aurpegian. Lehenengo galdeketan ezer gutxi galdetzen diote. Galdera batzu egiten dizkiote, baina denak pilaturik, erantzuteko astirik eman gabe. Botizki kolpekatzen dute sudur eta belarritik odoletan hasi arte. Galderen erantzunik ezagutu nahi ez dutela dirudi. Lurrera erortzen da jasandako kolpeen ondorioz, eta lurrean dagoenean ere, hauek darraite. Poliziek zutik jartzen ahalegintzen dira, baina ezinezkoa dute, erori egiten baita, ezin da zutik mantendu.
Hurrengo itaunketetan kolpeek jarraipena dute, hala nola buru, aurpegi, barrabil (barrabiletan, ez dezala seme-alabarik izan “ diote poliziek), ostikoak... Beraiek nahi dutena erantzunez gero ospitalera eramango dutela esaten diote, bestela ezetz. Baina azkenean, ezin dezake hitzegin mingaina eta ahoa guztiz handiturik baititu. Une batean, jasotako kolpeen ondorioz lurrean etzanda dagoelarik, barrabilak mahaiaren oinarekin zapaltzen saiatzen dira, baina honen pisua handiegia denez ezinezkoa egiten zaie. Etengabeak dira baita ere irain, umiliazio, iseka eta mehatxuak, familiaren kontra, baita ere kalera eramango dutenarekin, eta bertan bi tiroz hilko dutela esaten diote.
Biluztu eta begiak kamisetarekin benda gisa estaltzeko esaten diote. Esku zabalik jartzera behartzen dute, jo eta klabikularen gainean atximurka egiten dioten bitartean. Biluzik dagoela, polizia batek barrabilak marruskatzen dizkio pixkanaka, honek sortzen duen mina luzatuz. Egin dioten mingarriena da hau.
Jantziak odolez beterik ditu kolpeen ondorioz. Nahiz eta eraman dioten erropa garbia janztea ukatu, jantziak aldatzera derrigortzen dute ("por las buenas o por las malas").
Ziegan dagoela, polizia baek bazkaria eramatean, beste batek oihukatu egiten du polizia fidantza ere ordainduko dion esanez.

67ª	Iragi, Harriet
jaiotze data	24 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	16/10/2000
atxilotze lekua	Sevilla
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Poliziak atxilotzen duenean besoa zauriturik dauka. Hori dela eta kolpe, zapalketa, presio guztiak beso honetara zuzentzen dira.
Atxilotzean ospitalera eraman beharrean, komisaldegira eramaten dute, abokaturik gabe itaunketak eginez. Berak dioenez, hasiera batetik, ematen du ez dutela erantzunik nahi. Galdetu eta kolpekatu baino ez dute egiten, erantzunak emateko astirik eman gabe. Ia kolpe guztiak zauritutako besora zuzentzen dira. Mehatxuak ere etengabeak dira: komisaldegira itzuliko dela, zain dituen egunak bost direla, hilko dutela... Polizietako batek berak atxilotuz gero pistolaren kargadore osoa buruan hustuko ziola esaten dio. Lehertzear dagoenean, pitxer bete ur hotz botatzen diote erna dadin. Ospitalera eraman orduko lau ordu igarotzen dira. Eramaten dutenean oso gaizki dago, hotz handia eta dardarak dituela dio.
Ospitalean eskanerra egiten diote buruan, sendagile bat buruan duen minaz ohartzean. Bertan, zaurituta duen besotik operatu egiten dute. Bi egunetara ematen diote alta komisaldegira itzul dadin. Hemen itaunketek jarraitu egiten dute, eta ez diote beso zaurituak behar dituen zainketarik egiten. Mehatxu, umiliazio, irain eta kolpeak taigabeak dira.

68ª	Muñoa, Ibon
jaiotze data	40 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	18/10/2000
atxilotze lekua	Eibar
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 3. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxilotu bezain laster hasten dira mehatxuak. Madrilerako ibilbidean bertan zain daukanatzentzat presta dadila esaten diote. Inkomunikaturik ematen dituen egunetan zehar abokaturik gabeko galdeketa zehazgabeak jasaten ditu. Hauetan etengabeak dira kaskarrekoak, aurpegi eta kopeteko kolpeak, barrabilen marrusketak..

Biluztera behartzen dute behin baino gehiagotan, gerritik gora biluztera behartzen dute behin, eta buruan kolpatzen eta ileetatik tiratzen diote behin eta berriro. Ondoren guztiz biluztera eta kokoriko jartzera behartzen dute. Jarrera honetan dagoela, kolpekatzen jarraitzen dute, batez ere buruan, ileetatik tiratzen, eta barrabilak marruskatzen dizkiote. Hain dira gogorrak kolpeak poliziak gelditu egiten direla noizbehinka eskuek atseden har zezaten.

Mehatxuak etengabeak dira: neskalaguna eta gurasoak atxilotuko dituztela, torturatuko dutela ("bainuontzia", “poltsa"...). Zain daukanari aurre egiteko indarrak berreskuratu eta jan egin behar duela esaten diote behin baino gehiagotan.

Ziegan dagoen tarte osoan argia pizturik eta haize egokitua hotzean dauzka. Kanpoaldeko zarata handiak entzuten zituen.

69ª	Zuluaga, Mikel
jaiotze data	
sexua	Gizona
atxilotze data	01/11/2000
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 5 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Atxilotu zuten unea oso bortitza izan zen. Pertsona batzu zauriturik atera ziren, hauen artean bere neskalaguna. Eskuburdindu eta Indautxuko komisaldegira eramango zuenfurgoi polizialera jaurti zuten. Bertan, polizia bat hurbildu eta atxiloturik egon zen aurreko aldiaz elektrodoak berak ezarri zizkiola esan zion. Behin eta berriz errepikatzen zioten lehenengo galdeketan zehar nolako tratua jaso zuen bortizki torturatu zutenengo aldia. Sakoneko izua agerian uzten zuen egoera psikologiko batetara iristeko erabiltzen zituzten teknika hauek.

Bikain zeukan burua, baina fisikoki lehen eginda zegoenez bere buruari min ematen hasi zen. Lehenik lasaigarri batzuekin sartu zen forentsea ziegan, eta ondoren xiringa batekin. Poltsa beltz batekin ere sartu zen (atxilotu zuten aurreneko aldian forentsea zela esan zuenak ezarri zion “poltsa” deituriko tortura mota). Uko egin zion xiringa ezartzeari baina sei polizien artean heldu eta barrabilak eta gorputzeko beste atal batzu marruskatuz, injektatu egin zioten. Hala ere bere buruari min ematen jarraitu zuten, neskalaguna ikus zezan utzi arte.

Deklarazio judiziala egiteko epailearen aurrera eramatean, burua handiturik eta beltzunez beterik zeukan.

70ª	Garro, Nerea
jaiotze data	26 urte
sexua	Emakumea
atxilotze data	7/11/2000
atxilotze lekua	Madrid.
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Bulego polizialetan inkomunikaturik dagoen denbora osoan etengabeak dira galdeketak. Hauetan mehatxu, umiliazio, iseka ("escoria", “bastarda", “engendro de mierda"...), ile tirakadak eta kolpeak jasan behar ditu, gehienbat buruan eta aurpegian ematen dizkioten kolpeak eskua zabalik dutela ematen dizkiote, eta ukabilkadak sabelean eta saihetsetan.

Bortxaketaz egiten diote mehatxu eta nahiz eta hasiera batean sinistu ez, pixkanaka egin dezaketela pentsatzen hasten da. Tortura mehatxuak ere etengabeak dira.

Atxiloturik dagoen denbora osoan loak hartzea ezinezkoa duenez, azkenean galdurik sentitzen du bere burua. Neke eta logurearen arteko borrokaren ondorioz, irrealitate sentsazioa sortzen zaio.

Itaunketetako batean klabikularen gainean sastatzen dizkiote hatzamarrak, min izugarria sortaraziz.

71ª	Urretabizkaia, Asier
jaiotze data	25 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	7/11/2000
atxilotze lekua	Madrid.
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxiloketaren lehen unetik hasten dira mehatxu eta isekak. Egiten dizkioten galdeketetan etengabeak dira jasan beharreko irainak, hil eta torturatuko dutela esaten duten bitartean: “Torturatuko zaitugu, bainuontzia, poltsa ezarriko dizkizugu eta gero, nahi izanez gero, salatzen gaituzu”. Etengabeak dira baita ere kolpe, ukabilkada, ukondokada eta belarrondokoak, buru, sabel, barrabiletan eta aurpegian.

Behin baino gehiagotan behartzen dute biluztera. Hauetako batean polizietako batek barrabil eta ipurtzuloaren artean heltzen dio, izugarrizko mina sortuz. Biluzik dagoela, ordu luzez mantentzen dute esku zabalik eta hanka bat altxatuta. Makurtu eta kokoriko jartzera derrigortzen dute eta beso bat hanken artetik igaroz, gisa honetan ibil dadin esaten diote. Guzti hau mehatxu eta kolpeen artean, batez ere kolpeak buruan eta barrabiletanematen dizkiote.

Sarritan galdetzen diote bere erruz ezkon-arreba gauetan negarrez entzuten duen.

72ª	Goñi, Victor
jaiotze data	33 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	7/11/2000
atxilotze lekua	Madrid.
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6. A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxiloketaren unean hasten dira iseka, umiliazio, mehatxu eta kolpeak. Berarekin batera atxilotu duten neskalagunaren kartzeleratzearekin egiten diote mehatxu, nahiz eta ezer egin ez duela jakin. Hitzegiten ez baldin badu, tiro bat emateko ageriko toki batetara eramango dutela ere esaten diote. Galdeketetan etengabeak dira belauneko, belarrondoko, bizkar eta alboetan emandako ukabilkada, lepoko estuketa, ile tirakadak... Gerritik gorako kolpe gehienak esku zabalez ematen dizkiote.

Gorputz osoa jipoitzen dioten bitartean biluztera derrigortzen dute. Biluzik aurkitzen denean, barrabil eta ipurtzuloaren artean heltzen dio, honek izugarrizko mina sortaraziz. Kokotsaren azpian dagoen beste puntu batetik ere heltzen diote, oso min handia eraginez horrela. Eskuak zabalik ditu, hanka bat altxatzen duen bitartean. Gisa honetan jarraitu behar du lehertu arte. Nekearen nekeaz erortzen zenean, zutitu eta aurreko itxura hartzera behartzen dute. Biluzik dagoela, kokoriko hanka zabalik jartzera ere derrigortzen dute, barrabil, buru eta bizkarrean kolpatzen duten bitartean.

Belarrietan eskubarruez emandako kolpeak ere jasan behar ditu, neskalagun (torturatu eta bortxatuko dutela esaten diote), senide eta berarenganako isekak entzuten dituen bitartean. Etengabeak dira heriotz mehatxuak. Armen agerketa iraunkorren artean buru eta barrabiletan tirokatuko dutela esaten diote.

Galdeketa gelako argia itzaltzen dute behin baino gehiagotan, jakin ez dezan hurrengo kolpean nondik etorriko zaion.

73ª	Martinez de Osaba, Igor
jaiotze data	28 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	10/11/2000
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxiloketaren unean hasten dira lehenengo kolpe eta mehatxuak. Iraunkorrak dira atxiloturik eta inkomunikaturik ematen dituen egunetan abokaturik gabeko galdeketak. Hauetan kolpeak jasotzen ditu buru, aurpegi, bular, sabel eta barrabiletan, ileetatik tiratu eta izterretan emandako ostikadez gain, lurrean botata uzten duten arte. Mehatxuak ere etengabeak dira.

Itaunketetako batean belauniko jartzera derrigortzen dute polizietako batek “errusiar ruletara” jolastuko dutela ohartarazten dion bitartean. Une horretan pistolako danborra biratzen hasten da. Gelditzen den bakoitzean garondoan jarri pistola eta perkutorea sakatzen zuten. Sarritan errepikatzen dute.

Xabier Kalparsoro jaurti zuteneko ustezko leihoa erakutsi eta berarekin berdina egingo dutela esan ondoren, gorputz erdi bertatik ateratzen diote minutu batzuk horrela edukiz.

Beste batean, mahai baten gainean etzaten dute, eskuburdinez, sabaira begira eta gorputz erdi zintzilikaturik. Sabel, barrabil eta buruan kolpatzen dute. Gorputz osoa zurruntzen zaiola sentitzen du, muturretan sentikortasuna galdu arte. Ezin dezakeenez zutik iraun, narraz ateratzen dute itaunketatik. Konortea galtzen du, eta berreskuratzean anbulantzia bateko ohatilan dago eskuburdinez. Gainontzeko atxilotuetako batek komisaldegian dagoenean ikusi egiten du eta egoera ikusirik izutu egiten da.

Komisaldegitik Entzutegi Nazionalerako ibilbidea furgonetako lurrean etzanda egiten du, polizia batek burua zapaltzen dion bitartean.

74ª Muerza Santos, Iñigo

jaiotze data	
sexua	Gizona
atxilotze data	10/11/2000
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Egiten dizkioten galdeketak hastean, guztiak abokatuaren presentziarik gabe, ematen zaie hasiera buru, aurpegi eta barrabiletako kolpeei. Horrenbeste kolpeen artean, behin, lurrera bota eta ostikadak ematen dizkiote. Indautxuko komisaldegian eman zuen denboran, bost edo sei galdeketa egin zitzaizkion. Hauetan tortura mota ezberdinekin egiten zioten mehatxu, bainuontzi, elektrodo, motorraren buru-babesa eta poltsa esate baterako.

Madrilen, hiru galdeketa mota egin zitzaizkion. Lehenengoan mota guztietako mehatxuak barneratzen zituen tortura psikologikoak ziren nagusi, batez ere senideen inguruan. Bestean gorputz guztian kolpeak nagusi ziren bitartean, biluztu araziz, irain eta umiliazioen artean, azkenengoan, abailtze fisikoa bilatzen zuten jarrera ezberdinen bidez (kokoriko, esku zabalik, zutik hanka bat altxatuta...). behin, argi potente batzuen azpian ariketa fisikoak egitera behartzen dute, eta egarriz dagoen arren, ez diote edateko ezer ematen. Gau hortan, kalabozoaren barnean eta komuna kalabozotik banatzen duen atea izten diote, ezer edan ez dezan. Galdeketa hauek iraunkorrak ziren goiz eta arratsaldean, eta inoiz gauetan ere egin zizkioten.

Azken gaua izan zen latzena, kolpekatzen ari baitziren etengabe buru eta barrabiletan. Aho eta sudurra eskuekin hertsiz edota ahoan zapi bat sartuz axfisiatzen ere saiatu ziren, polizia batek noizbehinka eskua bihotzean jartzen zion bitartean.

Komisaldegian igarotako denboran jasotako tratu txarrengatik, denuntzia judiziala ezarriko da berehala.

75ª	Karrera, Asier

jaiotze data	28 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	19/11/2000
atxilotze lekua	Bilbo
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Indautxuko komisaldegira eramango duen kotxean sartu bezain pronto, kolpeak hasten dira, gehienbat buruan, sabel eta barrabiletan.

Behin komisaldegian, gela batetan sartzen dute bertan bost polizia daudelarik, eta hauek jipoi bat ematen diote, kolpeak gorputz guztian ematen dizkiote, batez ere buru eta belarrietan, kolpeak buruarekin lurraren kontra, ileetatik tirakadak...

Bere neska laguna gela batean sartzen dutela ikusten du eta pasiloan egotera behartzen dute, gelatik datozen oihuak, negarrak eta kolpeak entzuten dituen bitartean.

Miaketak egitera eramaten dutenean, galdeketa gogor bat izaten du, mehatxuak konstanteak dira, , Basajaun edo Geresta bezala bukatuko duela esaten diote, telefono mugikor batetik entzun erazten dizkiote neska baten negarrak eta oihuak, bere neska laguna dela esaten diotelarik, bortxatzen ari direla esaten diote, pistolekin jostatzen dute tiro bi emango zizkiotela esanez...

Madrilgo komisaldegian, ez diote lo egiten uzten hiru egunetan, eta behin eta berriro presionatzen dute psikologikoki bere neska lagunarekin. Egun batean, bere ahotsa entzuten du alboko kalabozoan zegoen neskarekin hitzegiten (berak denbora guztian pentsatzen zuen neska laguna zela) (grabatuta¿?), lasai egoteko eta ez dela ezer gertatuko esaten diolarik (burua galtzen ari dela pentsatzen hasia dago). Presio psikologikoa hain zen izugarria, bere esanetan, “lasaitzen ninduen fisikoki torturatzen ninduten”.

Komisaldegian pasatzen duen azkeneko gauan, mozkorturtik dauden bi poliziak beste jipoi bat ematen diote.

76ª	Eziolaza, Roberto
jaiotze data	28 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	19/11/2000
atxilotze lekua	Gasteiz
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	JCI nº 6 A.N.
egoera	Espetxeratua
salaketa	

Atxilotzen duen lehen unetik burua poltsa batekin estaltzen diote, eta denbora guztian horrela egotera behartzen dute. Atxilotu bezain pronto hasten dira kolpe eta mehatxuak. Galdeketetan etengabeak dira belarrondoko, ostiko, ukabilkada, kaskarreko, iseka, umiliazio eta mota guztietako mehatxuak: “Madrilen gogorrenek ere hitzegiten dute”. “Aita eta neskalaguna atxilotuko ditugu eta Madrilen bortxatu dezakegu”. “Gurasoen etxeko atea botako dugu, dena daukagu prestaturik...”

Biluztera behartzen dute. Poliziak entzuten ditu ipurtzulotik zerbait sartzeko bilatu behar dutela esaten. Berehala, behin baino gehiagotan, hotz dagoen zerbait pasatzen diote ipurtzulotik. Bitartean, barrabil eta ipurdian kolpekatzen dute. Paretari begira jartzera derrigortzen dute, eta buruan plastikozko poltsa bat ezartzen dioten bitartean, axfisiatzen dute. Horrez gain asmatikoa dela esan beharra dago, poltsaren eragina areagotuz. Behin baino gehiagotan txistua botatzen diote aurpegira.

Madrilerako bidaia, bizkarrean eskuburdindurik egiten du, ez diote uzten lo egiten. Etengabeak dira mehatxuak eta kolpeak. Eta heltzen da momentu bat ez dituela eskuak ezta besagaina ere sentitzen; bere hitzetan “jainkoei eskatzen nien bertan hiltzea".

Behin Madrileko komisaldegian, kolpeak, umiliazioak eta irainak darraite (biluztera behartzen dute behin baino gehiagoetan), bere indergetzea lortzeko, postura ezberdinetan egotera behartzen dute ordu luzez, ze tortura metodo nahiago duen galdetzen diote, bainera, elektrodoak, edo bere gorpua mahaiarekin hormaren kontra zanpatzea. Pistola bat ateratzen dute eta ia noizbait “ruleta rusa"-ra jokatu duen galdetzen diote.

77ª	Beaumont, Iñaki
jaiotze data	24 urte
sexua	Gizona
atxilotze data	24/11/2000
atxilotze lekua	Iruñea
atxiloketa mota	Inkomunikatua
polizia taldea	Polizia Nazionala
epaitegia	
egoera	Espetxeratua
salaketa	Ezarria

Atxilotu bezain laster, lurrera jaurti eta burua honekin kolpekatzen diote. Komisaldegira eramango duen furgoi polizialera sartzean buruan kolpekatzen jarraitzen dute.

Komisaldegian, paretaren kontra zanpatzen diote burua, ileetatik heldu, lurrera bota, ostikadak eman eta sakatzen duten bitartean. Ordenagailuak estaltzeko erabiltzen den zorroarekin "poltsa" ezartzen diote 20 edo 30 aldiz, polizietako batek eskuturrean pultsua hartzen dion artean. Mendira eraman edo tiro bat ematearen mehatxuak ere etengabeak dira, "inork ez baitaki hemen zaudenik"

Metalezko objektu batekin jipoitzen dute bizkarrezurrean, baina ezin dezake zer zen zehaztu begiak estalirik baitzituen. Honek lau zauri sortzen dizkio bizkarrean. Ondoren gauza berarekin jotzen dute buruan, eta azkenik, lepoan jartzen diote itolarria sortuz.

Iraunkorki jotzen dute buruan, polizia batek "gehiago ezin dezaket jasan, min handia daukat eskuan" esan arte. Une horretan, telefono gida hartu eta apurtu arte jotzen dio poliziak.

Bihurkin antzeko zerbait sartzen diote ezkerreko belarrian zauria sortuz. Izugarrizko ziztadak sentitzen ditu, odoletan hasiz.

TORTURA ERAK

Erabilitako tortura edo tratu txarren metodoen analisiari dagokionez, TAT-ri biktimek beraiek kontatuak izan direnak, honako hauek dira:

Kolpeak:

Tortura fisiko mota hau atxilotuek sarrien aipatu dutena da. Atxilotuetako 49ek (3 emakume eta 46 gizonezko) komisaldegiko egonaldian kolpeak jasan zituztela adierazi zuten. Kasu gehienetan kolpe hauek buruan izan ziren, 49 kasutan alegia. Gehienetan eskuez emandako kolpeak ziren, telefono gida edo beste objektu batzuez emandako kolpeak ere ba dauden arren.
Askotan antzeman ditzakegu ere barrabiletan emandako kolpeak (14 kasu), esku, ukabil edo ostikadez emandakoak.

Beste 18 kasutan kolpeak bereiz gabekoak edo orokortuak izan dira, hala nola sabelean, gorputzaren albotan, bularrean, zangotan... Kolpe hauek ukabilez, ostikoz eta tresna ezberdinen bidez izaten ziren.

Bi kasutan atxilotuak buruz gora, mahai baten gainean eusten dituzte, gorputz erdia zin-tzilikaturik. Une horretan polizia batek iletik beherantz tira-tzen dien bitartean, beste batzuek bular eta sabelean kolpatzen ditu atxilotuak.

Polizia nazionala da atxilotuak gehien kolpatu dituen polizi indarra. 32 aldiz buruan jo ditu, 18 kasutan kolpeak orokortuak izan dira, 14 kasutan ernai organuetan eta sei aldiz gotputzeko beste atalen batetan.

Eraso sexuala:

19 pertsonak biluztera behartuak izan direla aitortu digute, emakume bat eta 18 gizon hain zuzen ere. Biluzik egonik, etengabeak ziren umiliazio, sexu irainak eta bortxaketa mehatxuak, azken hauek batez ere polizia nazionalak burutuak. Bost atxilotuk bortxaketa itxurak egin dizkietela kontatu digute. Ezin dugu aipatu gabe utzi kasuetako batean Ertzaintza izan zela bortxaketa itxura hau aurrera eraman zuena, atxilotuari galtzak eta galtzontziloak erantsi eta lau hankaz jartzera behartu ondoren, ertzainetako bat atzean jarri eta honela zioen bitartean: "Orain ez,, ez baitut baselina ezta kondoirik ere".

Indargetze fisikoa:

Indargetze fisikoaren metodoak atxilotuen gehiengoak aipatu dizkigute. Hauetako 36k luzaroan zutik edo tente egotean zetzaten, ez ohizko jarreretan izatea 41 kasutan eman dira (kokoriko, besoak zabalik, zutik zango bat altxatuta eta beso zabalik, burua hanka tartean...) eta beste 4 kasutan ariketa fisiko gogorrak egitera behartu

dituzte. Azken hauek flexio eta abdominalak egitean zetzaten, gehienetan indargetzera arte.

Itotzea, "poltsa":

Itotzearen teknika ia polizia nazionalarena izan da esklusiboki, baina behin Guardia Zibilak eragina izan da. "Poltsak" burua poltsa batez estali eta lepoaren inguruan estutuz ia konortea galdu arte mantentzean datza.

Ile tirakadak:

12 pertsonak kontatu digute ile tirakada bortitzak jasan izan dituztela. Hauetako 10 gizonezkoak izan dira eta 2 berriz emakumezkoak.

Argi erasoak:

26 pertsonek erran digute ziegan zeuden bitartean argia pizturik zeukatela. Orokorrean, ziegaren kanpoaldetik erregulatzen zuen foku bat zen eta batzutan bestetan baino argi indartsuagoa ematen zuen. Teknika hau nahiko hedatua dago Ertzaintzan.

Janariaren ukapena:

Bulego polizialetan eman duten denboran zehar janaria ukatu zaiela kontatu digute bi atxilotuk (gizonezkoak). Hauetako batetan polizia nazionala izan zen ukapen hau burutu zuena eta bestean aldiz Ertzaintza.

Derrigorrezko logabezia:

Hamar atxilotuk, galdeketak zirela edo/eta poliziak ziegara gogaitzera zihoazelako, une batean ere ez zietela loak hartzen utzi esan digute. Atxilotuetako bik kontatu zigutenez, azkenean, loa, nekea, eta metatutako beldurraren arteko borroka kontraesankorra eragitea lortzen zuten poliziek, errealitatetik at bizi zareneko sentsazio egoera batetan murgiltzen zituztela.

Ikusmen galerazpena:

Atxilotuetako seik ikusmena galerazten zitzaiela kontatu digute. Begiak beraien arropekin edota komuneko paperarekin estaltzen zizkioten, beraien babes eza nolabait areagotuz.

Ertzaintzak atxilotutako gehienek esan digutenez, begiak estaltzeko ezer ez jarri arren, ezin zuten bistarik altxatu galdekatzen ari ziren poliziak begiratzeko. Hau eginez gero, oihukatu eta kolpekatzen bait zituzten.

Mehatxuak:

Tortura psikologiko era hau areagotzen ari da, eta Ertzaintzak adibidez, gero eta sarriago erabiltzen du, tortura fisikoa baino gehiago.

Atxilotuetako gehienek, jaso dituztela esan digute. Familiaren aurkako mehatxuak jasan zituztenak adibidez, 47 izan ziren: gurasoak langabezian uztea, familia deuseztatzea, senideak edo neskalagun/neskamutila atxilotzea eta beraien bista aurrean torturatzea...

Exekuzioaren mehatxuak atxilotuetako 19ek aipatu dituzte. Tortura bortitzagoen mehatxuak 21 pertsonek jasan izan dituzte: "bigarren mailara igaroko gara eta ezin izango duzu jasan", "torturatuko zaitugu" (orokorrean mehatxuak "poltsa", "bainuontzia" eta "elektrodoekin" izaten dira, kableak erakutsiz edota txorrotaren soinua entzunaraziz).

Beste mota batetako mehatxuak ere erabiltzen dituzte, alegia, kartzelaratuko dituztela, poliziek nahi dutena deklaratzen ez baldin badute kartzelan gertatuko zaiena esanez ...



Ejekuzio itxurak egitea:

Atxilotuetako lauk, su arma baten bidez exekuzio itxurak jasan izan dituztela kontatzen dute. Hauetako bati, berarekin "errusiar ruletara" jolastuko zutela esan zioten. Kokoriko jartzera behartu, errebolberraren danborra biratu eta tiro egitearen itxura egin zioten atxilotuetako bati. Beste une batean, komisaldegiko leiho batetik eskegitzen duten bitartean, handik botatzearekin mehatxatzen dute.

Beste hiru atxilotuek garondoan pistola bat jarri zietela kontatu ziguten. Hauetako batean, itaunketetan parte hartzen ari zen polizietako bat izutu ere egin zen.

Torturak ikusi edo entzutea:

Atxilotuetako zazpik beste atxilotu batzuen garraisiak entzun zituztela esan digute. Batek, beste atxilotu bat egoera negargarri batean ikusi ondoren, ziegetatik narraz eramaten zutela entzun zuela adierazi zuen.

Irain eta umiliazioak:

Tortura psikolojiko hau pairatu izan dutela atxilotuetako hogeitabatek adierazi dute. Iseka eta ahozko erasoen bitartez guztiz iraindurik eta umiliaturik sentitu izan zirela kontatu digute, jarrera iraingarrietan egotera ere behartu dituztelarik. Metodo hau gehien erabili izan duen polizi indarra Ertzaintza izan da.

Oihuak:

Atxilotuetako 44k, galdeketa gelatan zeuden bitartean oihu jasangaitzak pairatu zituztela esan digute. Hauetako bost emakumeak ziren, eta gainontzekoak, gizonezkoak, 39 hain zuzen. Tortura psikologiko era hau gehien erabiltzen duen polizi indarra Ertzaintza da, 28 kasutan. Ondoren, polizia nazionala dago, 16 kasutan.

POLIZIA TALDEAREN ARABERAKO METODOAK

GUARDIA ZIBILA

Urte honetan ez da oso eraginkorra izan atxiloketei dagokienez, baina hala ere, ankerki tratatu ditu eraman dituen kasuak. Atxilotuak, hasera haseratik kaputxa batez estaltzen dituzte, ikusmena eta galdeketaren haria gal dezaten. Metodorik erabilienak "poltsa", kolpe orokortuak (batez ere buru eta belarrietan) eta heriotza mehatxuak dira. Atxilotuengan eragiten duten izuaz jabeturik, beraiek nahi dutena deklaratu ezean, epailearen aurretik igaro ondoren bulego polizialetara berriz eramango dituztela jakinarazten die euren eskutan daudenei.

Iruñeako komandantzia

Atxiloketa burutzen deneko unean bertan hasten dira kolpeak eta mehatxuak, tortura metodo ezberdinak erabiliko dituztenaren aipamenak ("poltsa", "elektrodoak", "bainuontzia"...). Mehatxu hauek komisaldegiko egonaldi osoan zehar luzatzen dira: "epailearen aurrean deklaratzen ez baldin baduzu edo tratu txarrak salatuz gero hona itzuliko zara...". Batzutan "poltsaren" erabilera eman da. Begiak estaliz ikusmena oztopatzen zaio atxilotuari. Kolpeak errepikatu egiten dira behin eta berriz (batez ere buruan) galdereri erantzun ezean edota "ez dakit" batekin erantzuten zaien bakoi-tzean. Galdeketa gelan zein ziegan, atxilotuak ordu luzez zutik egotera derrigortzen dituzte.

POLIZIA NAZIONALA

2000. urtean zehar, polizi talde honek erabili ditu tortura metodo bortitzenak. Polizia Nazionalak gehien erabiltzen dituen metodoak kolpe orokortuak dira (batez ere buru, belarri eta barrabiletan), jipoiak, heriotza mehatxuak, tortura bortitzagoen erabileraren mehatxuak ("bainuontzia", "elektrodoak", "bortxaketak"...), ejekuzio itxurak ("errusiar ruleta", botako dutela esanez atxilotua leihotik zintzilikatzea, abiadura handiz joanda furgoitik botako dutela aipatuz atea ireki...), "poltsak" eragindako itolarria...

Atxiloketaren mementutik hasten dira kolpe eta mehatxuak. Galdeketan interesik jarri gabe, kolpeak eta beste metodo batzuk erabiliz egiten dituzte tortura sesioak, itaunketa guztiak horrelakoak izango diren itxura sortuz. Horrela bada, Polizia Nazionala da atxilotuenganako tratuan bortizkeria eta basakeria handienaren konstantzia uzten duen polizi taldea.

Kasuak atxiloketa guneen arabera aztertuz, honelako sailkapena izango genuke:

Iruñeako komisaldegia

Komisaldegira eraman orduko, atxilotuak paretari begira jartzen dituzte, zutik. Une horretan hasten dira kolpeak buruan, eskuaz, telefono gidaz, burua horma edo lurraren kontra joaz, ostikoen bidez... Atxilotua bizcar hezurrean kolpatzen dute metalezko objektu batez, lepoan tamaina handiko lau zauri sortuz. Bihurkin antzeko zerbait ere sartzen diote belarrian ziztadak sentitu eta odoletan hasi arte. Tortura era ezberdinen erabileraren mehatxuak ere ohizkoak dira, eta beste pertsona batzu torturatuko dituztenaren mehatxuak ere, hala nola familiarekiko, neskalagunarekiko...

Atxiloturen bati listua jaurtiki izan diote aurpegian. Hauetako batean polizia batek gorroa bota eta irenstera behartu zuen atxilotua. Komisaldegi honetan birritan ezarri zuten "poltsa" poliziek iaz, bi atxiloturi alegia. Horrez gain, atxilotu bati pistola ateratzearen keinua egin zioten, beste bati buruan jarri zioten. Atxilotu bati labana jarri zioten sudurrean, eta mehatxuen artean, gorantza sakatzen zuten. Kasuetako batean, atxilotu bat aulki batetara lotu zuten zango, bular eta eskuetatik. Galtzak eta galtzontziloak jaitsi zizkioten eta barrabiletan zerbait jarri, "elektrodoak" ezarriko zizkiotela esanaz. Berak ezin zezakeen ikusi jartzen ziotena, begiak estalirik bait zituen.

Amarako komisaldegia

Galdeketak komisaldegira heltzean hasten dira, nahiz eta kolpe eta mehatxuak bidaia osoan zehar izaten diren.

Gelako ertz batean zutik egotera derrigortzen dituzte atxilotuak, kolpeei hasiera emanez (buruan, hormaren kontra...). Kasu batzutan esertzeko baimena ematen diete, baina burua mahaitik hurbil mantenduz. Buruan kolpeak ematen dizkiete, mahaiaren kontra zanpatzen dituztelarik. Beste batzutan zutik jartzen dituzte paretari begira, kokoriko edo zutik belaunak pixka bat flexionaturik. Atxilotua flexioak egitera behartzen dute, polizien oinak barrabiletan jarriaz eta boligrafo bat ipurtzuloan duela.

Senide, neskalagun, lagunekiko mehatxuak eta tortura metodo ezberdinen erabileraren inguruko mehatxuak ere etengabeak dira. Atxilotua "bainerarekin" mehatxatzen dute ondoan dagoen komuneko txorrotaren soinua entzuten duen bitartean.

Zaragozako Poliziaren Burutza Gorena

Mehatxuak atxiloketaren unean hasten dira, identifikatu ostean tratu txar fisikoak hasten diren arren. Hasiera ematen diete buru, barrabiletako... kolpeei. Mehatxu ezberdinak ere etengabeak dira: senide eta neskalagunarekiko, Madrilerako ibilbidean gertatuko denaz, Madrilen gertatuko denaren ingurukoak... Desagertaraziko dituztela esanez ere mehatxatzen dituzte.

Orientazioaren zentzua galduarazteko metodoak erabiltzen dira. Poliziei aurpegira ez begiratzera eta burumakur egotera behartzen dituzte. Galdeketetan paretari begira zutik eta eskuak bizkarrean egotera derrigortzen dituzte. Beste jarrera indargetzaile batzu ere erabiltzen dituzte: zutik paretari begira, zutik beso zabalik, kokoriko, kokoriko beso zabalik, zutik hanka bat altxatuta eta beso zabalik... Nekearen nekeaz lurrera erortzen diren bakoitzean, kolpeka altxarazten dituzte. Horrela indargetzeraino. Itaunketek ordu askoz luzatzen dira.

Madrilerako lekualdatzean kolpe eta mehatxuek irauten dute, eta ez diete loak hartzen uzten.

Betoñoko kuartela (Gasteiz)

Kuartel honetan kolpe orokortuak erabiltzen dituzte batez ere (buru, sabel, bizkar, gibel, barrabil...), nahiz eta senide eta neskalagunaren inguruko mehatxu ezberdinak, irain,

iseka eta umilazioak ere ohizkoak diren. Kasu konkretu batean, bortxaketa itxura batean, atxilotuetako batek ipurtzulotik gogorra eta hotza zen zerbait pasatzen ziotela nabaritu zuen. Poltsa baten bidez kaputxaturik zegoenez, ezin zezakeen objektua identifikatu.

Sevillako Poliziaren Burutza Gorena

Kolpeak komisaldegira heltzean hasten dira. Lehen une honetan poliziek ez dute erantzunik jaso nahi, baizik eta atxilotuak izutu. Beraz, ez diete itaunketei jaramonik egiten. Kolpeak gorputz osoan zehar zabaltzen dira: buru, barrabil..., atxilotuetako baten beso zauritua barne.
kasuetako batean, tratu txarren biktima bat zoruan etzanda gelditzen da konortea erdi galdurik. Poliziek alde egiten dute, baina itzultzean atxilotua oraindik lurrean aurkitzen dute. Lurrean kolpatua izan den atxilotuetako bati barrabilak mahaiarekin zapaltzen saiatzen dira, baina ez dute lortzen, honek pisu handiegia bait dauka.

Polizia on eta txarraren jokoa burutzen dute. Kolpe eta atximurken artean (batez ere klabikulan), barrabiletatik heldu eta hauek pixkanaka-pixkanaka gogorki sakatzen hasten dira, min izugarria sortaraziz.

Familiarekiko eta tortura metodo ezberdinen inguruko mehatxuak ere ematen dira, eta baita ahozko irain sexualak ere.

Indautxuko komisaldegia

Kolpeak atxilotu orduko hasten dira, komisaldegian jarraipena izaten dutelarik. Gela batean sartu eta lurrera bota ondoren kolpatzen hasten dira (buru, barrabil...). Atxilotuetako bi mahai baten gainean etzan zituzten gorputz erdia zintzilikatzen utziz. Polizia batek barrabiletan kolpatzen zituen bitartean, beste batzuk iletik heltzen zieten.

Atxilotu batek dioenaren arabera, lehenengo gauean ez zioten ia ezer galdetu, egiten zuten bakarra bera kolpatzea zen: buru, aurpegi, sabel, barrabil... Belauniko jartzera behartu zuten "errusiar ruletara" jolastuko zutela esanaz. Era honetan, pistolaren danborra biratzen jarri eta hau gelditzean, garondoan jarri zioten. Hau behin baino gehiagotan burutu zuten.

Tortura era ezberdinen erabileraren eta, senide, neskalagun eta lagunen inguruko mehatxuak etengabeak dira. Atxilotuetako bati, handik irteteko egin zezakeen bakarra bere burua leihotik jaurtitzea zela azpimarratu zioten lehioa irekitzen zuten bitartean, eta bere burua bota duen lehenengoa ez zela izango esaten zio-

ten, beraiei ezer ez zitzaiela gertatuko esaten zioten bitartean. Beste atxilotu bati, leihoa ireki eta gorputz erdia zintzilikatu zioten bertatik. Minitu batzutan era horretan edukiz.

Segurtasunerako Zuzendaritza Nagusia, Madril

Bertara heldu bezain laster hasten dira kolpe, umilazio eta irainak. Paretaren kontra zutik egotera derrigortzen dituzte atxilotuak: zutik beso zabalik, zutik eta zango bat altxatuta, beso zabalik, kokoriko beso zabalik, kokoriko ibiltzea... Guzti hau, batzuetan bero izugarria sortzen duten foko batzu dituen geletan ematen da. Abaildura fisikoa lehenago lortu asmoz, batzuetan ez diete loak hartzen uzten, zarata handia eginaz edo bapatean ziegetan sartuz. Beste batzutan, galdeketa luzeen bidez ez diete atsedenik hartzen uzten atxilotuei.

Askotan, biluztu egiten dituzte. Postura ezberdinak hartzera behartzen dituzte. Lurrera listua bota eta, etzatera derrigortzen dute atxilotuetariko bat. Biluzik daudela, barrabilak marruskatzen dizkiete, eta batzutan, ipurtzulo eta barrabilen artean dagoen puntu batean, min handia sortarazten diete.

Mehatxu eta oihuak etengabeak dira. Bortxaketa mehatxua egiten dute noiznahi, hainbestetan ezen benetan egingo dutela sinistarazten dutela.

Ziegak bi zatitan banaturik daude. Bertara sartu bezain laster komuna dago. Hemen atxilotuetako gehienek ura edateko parada hartzen dute. Ondoren burdin trangazko ate bat dago, denbora osoa zabalik dagoena (Indar handiko foku baten pean zutik egotera eta urik gabe egotera behartutako atxilotu baten kasuan ezik. Kasu honetan, gau osoan zehar izan zuten ate hau itxita).

ERTZAINTZA

Itaunketak burutzeko Ertzaintzak erabilitako metodo erabilienak tratu txar psikolojikoak dira, hauek ez baitute markarik uzten. Zentzu honetan, kasu gehienetan erabilitako tresnak honako hauek izango lirateke: heriotza mehatxuak, tortura bortitzagoak egiteko mehatxuak, eraso sexualen mehatxuak (bortxaketa itxurak egitea barne), jarrera eta ariketa fisiko nekagarriak egitera behartzea, kaskarrekoak, irainak, isekak, umilazioak...

Txurdinagako komisaldegia

Galdeketak etengabeak dira, atseden hartzeko edo lokartzeko betarik utzi gabe. Hauetan, amaigabeak dira mehatxu, oihu, iseka eta umilazioak. Polizia on eta txarraren jokoa erabiltzen dute. Polizia "onek" leunki hitzegiten dute, euskaraz, eta "txarrek" oihuka eta mehatxuz.

Antiguoko komisaldegia (Donostia)

Kasu batzutan biluztera behartzen dituzte atxilotuak, gorputz osoa arakatuz. Atxilotuek ertzainei begiratu gabe, galdeketa guztiak burumakur egin behar dituzte. Ziegetan galdeketa egin ondoren, ohizkoa da gau osoan zehar atejoka iaritzea eta ertzainak bertaratzen diren bakoitzean atxilotuak zutik eta paretari egotera behartzea.

Oiartzuneko komisaldegia

Bideoarekin grabatu ahal izateko, denbora tarte luze batez kotxe barruan mantentzen dituzte atxilotuak, atzean eskuburdindurik eta eskua hanka artean dutela.

Galdekatzeko gela batera eraman asmoz beraien bila ziegara doazenean, zarata handia ateratzen dute. Segidan atea jotzen dute, eskuak bizkarrean, burumakur eta paretari begira jarri behar dutela jakin dezaten. Itaunketetan ere jarrera honetan egotera derrigortzen dituzte. Kasu batzutan belaunak erdi flexionaturik jarri eta flexioak egitera behartzen dituzte.

Itaunketetan amaigabeak dira oihu eta mehatxuak (batez ere senide, neskalagun/mutilagun, lagun eta kartzeleratzearen inguruan). Kolpeak ematen dituzte horman edo zoruan atxilotuak beldurtu asmoz.

Atxilotuak jo dituzten kasuak ere ematen dira: buruan, hormaren kontrako sakakadak, ostikoak... Atxiloturen bati ez zioten jaten eman. Behin baino gehiagotan, komunera eramateko eskatzean, ez zen ertzainik agertzen eta agertzekotan beraiekin joaten ziren. Komunean, burumakur egotera behartzen zituzten ertzainek, beraiek begiratzen egoten ziren bitartean.

Ziegak oso txikiak dira, baldosez egindakoak. Ertz batean esterilla eta estalki bat zituen irtenune bat dago, baldosazkoa baita ere. Burdinezko ateak leihatila bat dauka. Gauetan ertzainak oihuka hurbiltzen ziren leihatila honetara, loa eragozteko. Ziega batzuek kanpoaldera ematen duen leiho bat daukate, baina txapa batez estalia dago, argitasunik sartu ez dadin.

Lakuako komisaldegia

Azpimarragarria da, komisaldegi honetan itaunketa batzuk sendagile modura bata zuriz jantzitako ertzainek egin dituztela. Latexko eskularruak zeramatzaten eta baita kaputxa ere. Galdekatzaileetako batek "onarena" egiten duen bitartean, "txarrak" (beti daude bi) oihukatu eta mehatxatu egiten zuen. Azken honek mahaia jotzen zuen haserretzen zen bakoitzean.

Ziegetan, gauean zehar, haize egokitua hotzean jartzen zuten, eta egunean zehar berriz, beroan. Era honetan, bero izugarria egiten zuen egunez (jasangaitza zen) eta hotz handia gauez. Hotzbero aldaketa honek buruko min handia sortzen zuen.

Arkaute

Komisaldegi honetatik igaro diren atxilotuek, itaunketek irauten zuten bitartean paretari begira zutik, burumakur eta eskuak bizkarrean, oihu eta mehatxu etengabeen artean egon behar zutela kontatzen dute. Bulego polizialetan egin beharreko deklarazioak buruz ikastera behartzen zituzten, eta hauek egitean tratua bigundu egiten zen. Deklarazioa egin ostean, atxilotu batzuk ziegan egotera behartuak izan ziren luzaroan.

Madrilerako lekualdatzeak kaiola txikietan banaturik dauden furgoi polizialetan egiten dituzte. Atxilotuak kaiola txiki hauetan eramaten dituzte. Uneoro burua makurturik mantendu behar dute. Kaioletan kamera txikiak daude ertzainek atxilotuak ikus ditzazten. Baten batek burua altxatuz gero, ertzainak atera hurbildu eta kolpatu egiten dute.

METODOA	GUZTIRA	E	G	GUARDIA ZIBILA	POLIZIA NAZIONALA	ERTZAINTZA
KOLPEAK						
Buruan	49	3	46	2	32	15
Orokorrean	18	0	18	0	18	0
Ernal organutan	14	0	14	0	14	0
Beste nonbait	11	2	9	0	6	5
INDARGETZEA						
Luzaro-tente	36	2	34	1	13	22
Ez ohizko jarrera	41	2	39	0	20	21
Ariketa fisikoak	4	0	4	0	3	1
ITOTZEAK	6	0	6	1	5	0
ILE TIRAKADAK	12	2	10	0	10	2
ARGI ERASOAK	26	3	23	0	6	20
JANARI UKAPENA	2	0	2	0	1	1
ERASO SEXUALAK						
Ahozkoak	9	3	6	0	7	2
Biluztarazteak	19	1	18	1	10	8
Bortxaketa	0	0	0	0	0	0
Bortxaketa itxura edo mehatxuak	5	1	4	0	4	1
STRESS KLIMA	6	1	5	0	3	3
LOGABEZIA	10	2	8	0	4	6
IKUSMEN GALERAZPENA	6	0	6	1	5	0
GALDEKETA ETEN-GABEAK						
MEHATXUAK						
Exekuzioarenak	19	0	19	0	16	3
Familiarekikoak	47	5	42	0	26	23
Torturatzearekin	21	3	18	1	19	1
Besteak	44	3	41	1	17	26
EXEKUZIO ITXURAK	3	0	3	0	3	0
TORTURAK ENTZUN IKUSI	7	1	6	0	5	2
UMILIAZIOAK	21	2	19	0	11	10
OIHUAK	44	5	39	0	16	28

SALAKETAK

1ª IZARO LOPEZ BIDAGUREN

Ezartze data	2000ko otsailak 25
Epaitegia	Bilboko 6. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD 550/00
Egoera	2000.eko azaroaren 13an, erreforma errekurtsoa, eta sorosgarri apelazio errekurtsoa tarteratzen dira. Azaroaren 29an, erreforma errekurtsoaren arbuioa ematen da eta apelazio errekurtsoaren onarpena.

2ª JON URRETABIZKAIA SAUQUILLO

Ezartze data	2000ko otsailak 25
Epaitegia	Bilboko 7. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD 733/00
Egoera	2000.eko abenduaren 20an, erreforma errekurtsoa tarteratzen da kausaren behin behineko artxibo eta bertan behera uztearen kontra.

3ª JULEN URIARTE ITURRIAGA

Ezartze data	2000ko martxoak 7
Epaitegia	Bilboko 3. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 703/00
Egoera	2000.eko ekainaren 1ean erreforma errekurtsoa, eta sorosgarri apelazio errekurtsoa tarteratzen dira, kausaren bertan behera uztearen eta artxiboaren kontra. 2000.eko uztailaren 3an, epaitegiak erreforma errekurtsoa arbuiatzen du, apelazio errekurtsoa onartuz. 2000.eko irailaren 18an, apelazio errekurtsoaren bozketarako eta epaia emateko data ezartzen da 2000.eko urriaren 25erako

4ª GUILLERMO MERINO BILBAO

Ezartze data	2000ko otsailak 25
Epaitegia	Bilboko 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 525/00
Egoera	2000.eko uztailaren 20an artxibatu egiten da, interesatuari 2000.eko azaroaren 15ean jakinaraziz. Ez da errekurtsorik tarteratzen, epaitegiak abokatuaren pertsonazioa onartu ez zuelako, eta abokatu eta prokuradorea berriro personifikatzen ahalegintzean, kausa artxibatuta dagoenaren jakinerazpena jasotzen dute. Artxiboa Merinori jakinaraztean, eta hau kartzelan egonik, komunikazio arazoak medio izan direla, errekurtsoaren epea bukatu egin da.

5ª MIKEL ARRIETA LLOPIS

Ezartze data	2000ko irailak 8
Epaitegia	Donostiako 1. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2586/00
Egoera	Madrilera inibizioa, J.I.nº 10, 5143/00 Aurre Dilijentziekin.

6ª GARIKOITZ GASTESI

fecha interposición	2000ko maiatzak 26
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 1266/00
Egoera	Salaketa artxibatu egin da. Erreforma errekurtsoa, eta sorosgarri apelazio errekurtsoak tarteratzen dira. Erabakiaren zain.

7ª GORKA URBIETA HUIZI

Ezartze data	2000ko maiatzak 25
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 1258/00
Egoera	Salaketa artxibatua. Erreforma errekurtsoa, eta sorosgarri apelazio errekurtsoak tarteratu dira. Ministeritza Fiskalari igorria, errekurtsoari buruz eritzia eman dezan.

8ª EGOITZ URBE

Ezartze data	2000ko maiatzak 25
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 1259/00
Egoera	Salaketa artxibatua. Erreforma errekurtsoa, eta sorosgarri apelazio errekurtsoak tarteratu dira. Ministeritza Fiskalari igorria, errekurtsoari buruz eritzia eman dezan.

9ª OROITZ GURRUTXAGA

Ezartze data	2000ko maiatzak 25
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 1260/00
Egoera	Salaketa artxibatua. Erreforma errekurtsoa, eta sorosgarri apelazio errekurtsoak tarteratu dira. Ministeritza Fiskalari igorria, errekurtsoari buruz eritzia eman dezan.

10ª MIKEL OSTOLAZA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 3. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2687/00
Egoera	Epaitegitik Ertzaintzaren komisaldegira eskaera, komisaldegian egondako garaian gertaturiko gorabeheren berri eman dezan. Entzutegi Nazionalari eskaera, Ostolazaren aurkako dilijentzietan lekukotasunak ondoriozta ditzan.

11ª JOKIN SOLANO SALABERRIA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3089/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

12ª IÑAKI GURRUTXAGA RAFAEL

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3095/00
Egoera	Aurretiazko Dilijentzien hasiera ematearen autoa baino ez dago.

13ª AHILETZ ZULOAGA LARREA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3086/00
Egoera	Aurretiazko Dilijentzien hasiera ematearen autoa baino ez dago.

14ª IMANOL GORROTXATEGI

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3092/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

15ª JON ANDER MARTIN VILLAR

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3088/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

16ª IÑAKI MINER CANFLACA

Ezartze data	aa
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3099/00
Egoera	Aurretiazko Dilijentzien hasiera ematearen autoa baino ez dago.

17ª ANGEL TELLERIA LUJANBIO

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3093/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

18ª JON GASAMANES

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3091/00
Egoera	Aurretiazko Dilijentzien hasiera ematearen autoa baino ez dago.

19ª UNAI KIJERA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3087/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

20ª IÑAKI LORENZO QUINTELA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3096/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

21ª GOTZON ARANBURU

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3085/00
Egoera	Aurretiazko Dilijentzien hasiera ematearen autoa baino ez dago.

22ª URTZI AIRA URRUZOLA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3090/00
Egoera	Aurretiazko Dilijentzien hasiera ematearen autoa baino ez dago.

23ª ENEKO ALONSO

Ezartze data	2000ko maiatzak 18
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 1196/00
Egoera	2000.eko urriaren 6an kausaren bertan behera uztea eta artxiboa. 2000.eko urriaren 26an, erreforma errekurtsoa eta sorosgarri apelazio errekurtsoak ezartzen dira, kausaren artxiboaren kontra. Azaroaren 9an erreforma errekurtsoaren onarpena ematen da. Azaroaren 23an, Eneko Alonsori kaltetu bezala deklaratzera aipu egiten zaio.

24ª XABIER ZUÑIGA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2720/00
Egoera	2001.eko urtarilaren 15ean salaketaren artxiboa ematen da. 20001.eko urtarrilaren 18an, erreforma errekurtsoa, eta sorosgarri apelazio errekurtsoak ezartzen dira.

25ª IRATXE APAOLAZA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 3. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2680/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

26ª JOKIN APEZETXEA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2721/00
Egoera	Epaitegira probidentzia Entzutegi Nazionalari mediku txostenak eta Jokin Apezetxeak egindako deklarazioen berri eskatuz.

27ª IKER IÑIGO

Ezartze data	2000ko abuztuak 31
Epaitegia	Iruñeako 1º Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. PA 5307/00
Egoera	2000.eko irailaren 15ean, Epaitegiak Polizia Nazionalari ofizioa igortzen dio, atxiloketan gertatutakoaren berri eman dezan.

28ª AITOR DOMEZAIN ARTOLA

Ezartze data	2000ko urriak 24
Epaitegia	Donostiako 1. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3086/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

29ª JOXAN ASTIGARRAGA

Ezartze data	2000ko urriak 3
Epaitegia	Donostiako 1. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2914/00
Egoera	2000.eko azaroaren 10ean bertan behera uztea eta behin behineko artxiboa. 2000.eko abenduaren 18an, erreforma errekurtsoaren onarpena.

30ª LARTAUN RODRIGUEZ ALDANONDO

Ezartze data	2000ko irailak 8
Epaitegia	Iruñeako 1º Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3086/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

31ª AITOR ABANDA PAGOLA

Ezartze data	2000ko irailak 8
Epaitegia	Donostiako 5. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	
Egoera	Madrilera inibizioa, 148/00 Aurretiazko Dilijentziak, J.C.I. nº3.

32ª GARIKOITZ MENDIZABAL

Ezartze data	2000ko irailak 8
Epaitegia	Donostiako 5. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2472/00
Egoera	Madrilera inibizioa, 148/00 Aurretiazko Dilijentziak, J.C.I. nº3.

33ª GORKA IRURETAGOIENA MUGIKA

Ezartze data	2000ko azaroak 7
Epaitegia	Donostiako 1. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3184/00
Egoera	Salaketa eta pertsonazioa 2000.eko abenduaren 12an.

34ª GAIZKA GARCIA URBIETA

Ezartze data	2000ko irailak 22
Epaitegia	Donostiako 4. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 1756/00
Egoera	Salaketa tarteratua. 2000.eko abenduaren 3an Ministeritza Fiskalari igorria, errekurtsoari buruz eritzia eman dezan.

35ª LEIRE MARTINEZ PEREZ

Ezartze data	2000ko irailak 8
Epaitegia	Durangoko 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 0963/00
Egoera	Madrilera inibizioa, J.C.I. nº16, 5674/00 Aurretiazko Dilijentziak.

36ª AITOR LORENTE

Ezartze data	2000ko irailak 6
Epaitegia	Bilboko 1. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2501/00
Egoera	Zaragozara inibizioa, J.I. nº5, 3768/00 Aurretiazko Dilijentziak. 2000.eko abenduaren 15ean artxibatua. Errekurtsoaren zain.

37ª	JON KARRO
Ezartze data	2000ko irailak 29
Epaitegia	Bilboko 9. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2768/00
Egoera	2001.eko urtarrilaren 11.eko auto bidez kausaren bertan behera uztea eta behin behineko artxiboa. Erreforma errekurtsoa eta sorosgarri apelazio errekurtsoak tarteratuak, 2001.eko urtarrilaren 18an.

38ª	OSKAR AMARO
Ezartze data	2000ko irailak 29
Epaitegia	Bilboko 7. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 2886/00
Egoera	2000.eko abenduaren 26an auto bidez kausaren bertan behera uztea eta behin behineko artxiboa. Erreforma errekurtsoa eta sorosgarri apelazio errekurtsoak tarteratuak, 2000.eko abenduaren 28an.

39ª	ENEKO ZESTAU ARANIBAR
Ezartze data	2000ko irailak 8
Epaitegia	Iruñeako 1º Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 5369/00
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

40ª IBON BELOKI ORTUZAR

Ezartze data	2000ko azaroak 23
Epaitegia	Durangoko 3. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 1038/00
Egoera	Bilbora inibizioa 2000.eko abenduaren 29an, J.I.nº4, 2819/00 Aurretiazko Dilijentziak.

41ª AMAIA PASCUAL

Ezartze data	2000ko azaroak 23
Epaitegia	Donostiako 1. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3280/00
Egoera	Madrilera inibizioa 2000.eko abenduaren 29an.

42ª JUAN TRECET SASTRE

Ezartze data	2000ko abenduak 22
Epaitegia	Donostiako 1. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	D.P. 2883/00
Egoera	2001.eko urtarrilaren 9an, Madrilera ihnibizioa, J.C.I.nº6, 191/99 Aurretiazko Dilijentzietara metatuz.

43ª JON IGOR SOLANA

fecha interposición	2000ko abenduak 21
juzgado	Bilboko 7. Argipide epaitegia
nº diligencias	AD. 3562/00
situación	2000.eko abenduaren 21ean Sevillara inibizioa.

44ª HARRIET IRAGI

Ezartze data	2000ko abenduak 22
Epaitegia	Bilboko 8. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3345/00
Egoera	2000.eko abenduaren 22ean Sevillara inibizioa.

45ª IBON MUÑOA

fecha interposición	2000ko abenduak 15
juzgado	Donostiako 3. Argipide epaitegia
nº diligencias	AD. 135/00
situación	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

46ª NEREA GARRO

Ezartze data	2000ko abenduak 29
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 5/01
Egoera	Madrilera inibizioa 2001.eko urtarrilaren 4an.

47ª ASIER URRETABIZKAIA

Ezartze data	2000ko abenduak 29
Epaitegia	Donostiako 2. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 4/01
Egoera	Madrilera inibizioa 2001.eko urtarrilaren 4an, J.I.nº6, 3940/00 Aurretiazko Dilijentziekin.

48ª VICTOR GOÑI

fecha interposición	2000ko abenduak 28
juzgado	Gasteizeko 3. Argipide epaitegia
nº diligencias	AD. 3305/00
situación	2000.eko abenduaren 30ean, Bilboko Instrukzio Epaitegi Dekanora inibizioa.

49ª IÑAKI BEAUMONT

Ezartze data	2000ko abenduak 19
Epaitegia	Iruñeako 3 Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	
Egoera	Salaketa tarteratu zenetik ez dago berririk.

50ª IGOR MARTINEZ DE OSABA

Ezartze data	28 de Diciembre
Epaitegia	Gasteizeko 3. Argipide epaitegia
Dilijentzi zkia	AD. 3290/00
Egoera	2000.eko abenduaren 28an, Madrideko Instrukzio Epaitegi Dekanora inibizioa.

ONDORIO PSIKOLOGIKOAK

Sorturak jasatea, komisaldegitik igarotzea, mehatxuak, erasoak
suntsikorra erakar dezaketen elementu estresanteak dira
ditugun pertsonen segurtasun edo integritate fisikoarenganako mehatxu bortitza suposa
dezakete .
garatu ez, hasiera batean sintoma andana agertzen dute askok
agertzen dira depresioa, antsietatea, sumina, etsipena

Bizpahiru egunetan desagertzen dira sintomok, ez ohizko estres baten ondorio baitira. Sintomen agerpenean faktore askok hartzen du parte, hala nola bizitako egoeraren ezaugarriak, gizabanakoaren pertsonalitateak, une zaurtzakorrik dagoen...

Batzuetan izaera estresantea duten gertaera horiei erantzun berantiarra ematen zaie eta sintomak luzaroan mantentzen dira.

2000.urtean zehar komisaldegitik igaro diren pertsona batzuei (berrogei zehazki) jarraipena egin zaie. Elkarrizketa pertsonal baten bitartez, atxiloketaren testigantzaz gain, emozionalki gertaera horrek beraiengan izan duen eraginaren datuak jaso dira. Nabaritutako eraginak hiru multzotan banatu dira: Antsietate sintomak, Depresio sintomak eta Sintoma Postraumatikoak.

Hilabete baten buruan, berrogei pertsonetatik hogeiri elkarrizketa berria egin zaie, azaldutako sintomen zerrenda biltzen zuen galdera sorta berriz betetzeko. Jasotako emaitzak honako hauek dira:

Lehenengo taulan ikus daitekeenaren arabera, lehenengo taldeko (berrogei kasuak) hamabost pertsonek antsietate sintomak agertzen zituzten, hots, % 35ak. Depresio sintomak hamasei kasutan agertzen ziren, elkarrizketatuen % 40an alegia. Sintoma postraumatikoak 23 kasuk agertzen dituzte, hau da, osotasunaren % 57'5ak. Soilik 9 kasutan ez dira nabari antsietate zein depresio sintomak.

1 TAULA K=40

	KASU KOPURUA	%
ANTSIETATEA	15	37,5
DEPRESIOA	16	40
SINTOMARIK EZ	9	22,5
TRAUMA ONDORENGO SINTOMAK	23	57,5

Ondorengo jarraipen batean, hilabete baten buruan, datu berriak jaso diren 20 kasuetatik seik antsietate sintomak agertzen dituzte, hots, % 30a. Zazpi dira depresio sintomak agertzen dituztenak, % 35a eta 14tan berriz sintoma postraumatikoak somatzen dira, % 70a alegia (2. TAULA).

2 TAULA K=20

	ASKATU ONDOREN		HILABETE ONDOREN	
	KASU KOPURUA	%	KASU KOPURUA	%
ANTSIETATEA	12	60	6	30
DEPRESIOA	10	50	7	35
SINTOMARIK EZ	3	15	3	10
TRAUMA ONDORENGO SINTOMAK	17	85	14	70

Zehatzago esateko, sintomak agertzen dituzten kasuen bilakaera 3. Taulan jasotzen dena da.

3 TAULA K=20

	GEHITU EGIN DA		GUTXITU EGIN DA		IRAUN DU	
	KASU KOPURUA	%	KASU KOPURUA	%	KASU KOPURUA	%
ANTSIETATEA	2	10	7	35	5	25
DEPRESIOA	4	20	7	35	3	15
TRAUMA ONDORENGO SINTOMAK	1	5	7	35	9	10

Antsietatearen kasu kopuruari dagokionez, handitu egin dira bi kasutan, % 10a hain zuzen ere. Gutxitu egin dira zazpi alditan (% 35a) eta sintoma berberekin mantendu dira bost kasutan (osotasunaren % 25a).

Depresioari dagokionez, sintomak lau kasu gehiagotan nabaritu diren bitartean, (% 20), zazpitan gutxitu egin dira, hau da, % 35a. Hiru kasu sintoma berberekin mantentzen dira (% 15).

Sintoma postraumatikoei kasu bat gehitzen zaie (%5), zazpi gutxitu (% 35) eta bederatzi kasu mantendu egiten dira, % 45a alegia.

Maizen agertzen diren antsietate sintomak honako hauek dira: itxurazko arrazoi gabeko bat-bateko aztoramenduak, izuturik sentitzea, barne asaldamendua, egonezina, atezatu edo blokeaturik sentitzea eta buruko minak, bururengoak, zefaleak...

Hilabete baten ondoren lehengo sintomek irauten dute, baina berri batzuk gehitzen zaizkie, esaterako izuturik sentitzea, urduritasuna edo barne asaldapena eta egonezina.

Depresio sintomei dagokienez, sarrien ematen diren erantzunak honako hauek dira: energiarik gabe sentitzea, edozerk ahalegin handia suposatzen duela sentitzea, logaldua, itxaropen eza, nostalgia eta gauzenganako gehiegizko ardura sentitzea.

Sintoma batzuk nabaritu daitezke hilabete beranduago ere, hala nola, energiarik gabe sentitzea, etorkizunarenganako itxaropen eza, nostalgia eta gauzenganako gehiegizko ardura.

Behaturiko sintoma postraumatikoak zabalak dira eta atxiloketarekin harremana duten gertaeren inguruko pentsamendu edo oroitzapenetatik eratortzen dira: gertaera berriz bizitzearen sentipena, desbinkulazio sentimenduak, jendearengandik urruntzea edo jendea errefusatzea, kontzentrazio zailtasunak, erne edo zurt egotea, saminkortasun eta haserrealdiak, gertaera ekiditea edo honen zati batzuk gogoratzeko ezintasuna, etorkizunik ez izatearen sentipena, bat-bateko erantzun fisiko edo emozionalak atxiloketa gogoratzerakoan, errudun sentitzea, esperantzarik eza...

Beste sintoma mota bat nabaritu daiteke hilabete baten ondoren, gertatutakoari arrazoi zehatza bilatzea, jendeak norbera ulertzen ez duela sentitzea, izukor sentitzea..., baina hala ere, hauek lehenago aipatutako sintoma batzuekin loturik antzematen dira: itxaropen eza, erreakzio fisiko edo emozionalak izatea gertaera gogoratzerakoan, saminkortasuna, behin eta berriz errepikatzen diren oroitzapen edo sentimenduak, gertaera berriz bizitzearen sentimendua edo desbinkulazio sentimenduak.

ONDORIOAK

- Elkarrizketatuen gehiengoak antsietate eta depresio sintomak postraumatikoekin nahasirik agertzen ditu. Sintoma hauek aldatu egiten dira denbora aurrera doan heinean.

- Joera orokorra hilabete baten buruan antsietate eta depresio sintomak % 60 eta % 50etik, % 30 eta % 35era gutxitzea da hurrenez hurren.

- Antsietatearen kasuan, sintomak modu ezberdinez azaleratzen dira.

- Sintoma postraumatikoak modu adierazgarrian mantentzen dira, hots, % 85etik % 70era, antsietatearen kasuan bezala sintomak agertzeko kasu ezberdinak nabarituz.

- Ia sintomarik agertu ez duten pertsonen portzentaiak eutsi egiten du nahiz eta denborak aurrera egin.

Frantziatik Espainiara kanpora-tutako Euskal iheslariak

Espainiar segurtasun indarrei legez kontra entregatuak

Espainiar segurtasun indarrek torturatuak

Espainiako espetxeetan gatibu

2001 URTARRILA

Autor: Didier Rouget

Azken urteetan zehar, frantses gobernuak euskal iheslari ugari entregatu du, Frantzian atxilotu ondoren espainiar segurtasun indarren esku utziz. Onartu beharra dago euskal herritar asko frantses lurraldeetan errefuxiatzen dela espainiar segurtasun indarrek sistematikoki ezartzen duten errepresio, tortura eta tratu txarrengandik ihes eginez. Frantzian, iheslari hauetako asko atxilotuak eta zigortuak izan dira *"gaizki l een e l kargo"*akusaziopean, euskal erakunde independentisten kide izan edo hauekin harremana izategatik. Ondoren, espainiar agintarien aldetik estradizio eskaerarik egon ez arren, Frantzian ezarritako zigorra bete duten pertsona hauek, aske utzi beharrean, indarrez eramaten dituzte estatu espainiarrera, indar polizial espainiarren esku utziz.

Pertsona hauen entrega zuzenean eta mugan bertan egiten zaie espainiar segurtasun indarrei (Guardia Zibila, Polizia Nazionala). Entregaren ondoren, atxiloturik eta inkomunikaturik geldituko dira. Kasu gehienetan, epaile aurretik igaro baino lehenagoko epea bost egunez luza daiteke. Epe honetan zehar ematen dira hain zuzen ere Giza Eskubideen Babeserako Europear Hitzarmenaren 3. artikuluaren aurka doazen tratu txarrak. Ondoren pertsona hauek espainiar agintari judizialengana eramaten dituzte erruduntzat joz epaituak izan daitezen.

Frantses agintaritzatik espainiar segurtasun indarrenganako euskal militante independentisten entrega zuzena, espainiar eta frantses gobernuek erabiltzen duten ohizko praktika da. Hain bizkor egiten da prozedura hau, entregatutako pertsonak ezin dezakeela aldi baterako errekurtsorik ezarri Frantziako sistema judizialean. Prozesua denbora oso laburrean ematen den oharpen baten bidez egiten da, hain juxtu entrega burutu baino pixka bat lehenago . Praktika hau burutzea oso erraza eta eragingarria egiten zaie, izan ere pertsona hori Frantziako kartzela edo komisaldegi batean atxiloturik baitago, eta ondorioz senide edo abokatuarekiko guztiz isolaturik.

Praktika honek, espainiar estradizio eskaeren aurrean agintari judizial frantsesek egiten duten kontrolari ihes egitea ahalbidetzen die, eta beraz, erabakien derrigorrezko bermea ezabatzen du. Espainiar agintariekin hitzartutako entrega prozedura erabiliz, legalki burututako kanporatze prozesuak erakartzen dituen tramite astunak bazterrean uzten dituzte. Modu honetan, prozesu egokia eginez gero izango lituzkeen bermeez gabetzen dute interesatua, abokatua eta itzultzailea izatea bezalako oinarrizko eskubideez alegia. Alabaina, izan daiteke estradizio eskaera bati ezezkoa ematea, hain zuzen ere zalantzazko salaketetan oinarritzen delako, Espainian torturen menpean jasotako datuetan oinarritzen delako, eta baita gertaera berberengatik pertsona hori Frantzian zigortua eta kartzeleratua izan delako ere, bainan pertsona hosi, entregaren bidez agintari espainiarren esku uztea.

Esaterako, **Josu Urrutikoetxea** 1996ko maiatzaren 5ean kanporatu zuten Frantziatik Espainiara, espainiar agintariei entregatua izanez. Data honetatik, Frantzian 10 urtetara kondenatua izan zeneko gertaera eta espediente berberagatik Madrilen kartzeleratu zuten. Bestalde, Espainiak 1990eko urriaren 16an bere kontra eskatutako estradizio prozesua ukatua izan zen Espainiako Entzutegi Nazionalak aurkeztutako frogen trinkotasun eza zela eta. Edonola ere, kanporaketa prozesuaren erabilpenak, estradizioari emandako ezezko hori aldatzea ahalbidetu die frantses eta

espainiar agintariei. Beti ere frantses agintariek igorritako espediente berberean oinarrituz, espainiar ministeritza publikoak Josu Urrutikoetxearentzako 31 urteko kartzela zigorra eskatu zuen 1999ko irailean, Urrutikoetxea 1998ko urrian diputatu eta 1999ko ekainean zinegotzi aukeratua izan arren. Halaber, 1999ko maiatzaren 26an Toulouseko Epaitegi Administratiboak legez kanpokotzat jo zuen entregaren prozesua eta baita Espainia helmuga herrialdetzat ezartzen zuen erabakia ere .

Horrez gain, Frantziatik urruntze eta espainiar agintariei entrega neurrien burutzeak atzeraezinezko izaera dauka, eta frantses jurisdikzioak epe baten barruan erabakia ezabatu arren, espainiar agintariek ez dute atzerriko erabaki judiziala onartu beharrik, eta beraz, askatasunaz gabetu dezakete interesatua "Male captus, Bene detentus " adagioaren ondorioz. Oinarri honetaz baliatuz, Entzutegi Nazionalak 83 urtera zigortu zuen **Josu Arkauz Arana** 1998.urtean, agintaritza frantsesak entrega legez kanpokoa zela adierazi arren.

Espainiar segurtasun indarrei egiten zaien entregen prozedura hau, atxiloketan amaitzen dena, **Jean-Louis Debré Frantziako Barne ministroak** aldarrikatu eta azaltzen du ABC egunkari madrildarrari eskainitako elkarrizketa batean (1996ko uztailaren 14ko alean, 11.orrialdean). Euskal iheslari edo atxilotuen Espainiarako kanporaketaren inguruan honela dio: "Egungo frantses gobernuak, Espainiako justiziak eskatzen dituen pertsona guztiak (ETAko kide edo lagunkideak) entregatuko dizkio Espainiari Frantzian prozedura legalik ez duten bitartean". Legez kanpoko prozedura hau sistematikoki eraman dute aurrera **Jean-Pierre Chevènement eta Daniel Vaillant Frantziako Barne ministroek**.

Frantses epaitegiek kondenatzen duten legez kanpoko teknika

1986.urteko abenduaren 18an Gizakiaren Eskubideen Europear Gortean, "**Bolzano Frantziaeren aurka**" kasuan, tribunalak eman zuen epaiaren arabera, agintari frantsesek euskal militante independentistak espainiar segurtasun indarrei zuzenean entregatzeko dagoen neurri hau "mozorrotutako estradizioa" da. Espainiar segurtasun indarrei entrega egiteko erabakiak, 1945eko azaroaren 2ko ordenantzaren 27 bis artikulua bortxatzen du. Ordenantza honek Frantziara sartu eta bertan bizitzeko egoerak aztertzen ditu: " Ezin daiteke atzerritar bat herrialde batetara joatera behartu baldin eta bere bizia edo askatasuna mehatxaturik badaude, edota 1950eko azaroaren 4ko Gizakiaren Eskubide eta Oinarrizko Eskubideen Babeserako Europear Hitzarmenaren 3.artikuluak ezartzen duenaren aurkako tratua jasotzeko arriskuan baldin badago ".

Frantziako Epaitegi administratiboetako epaile ugarik legez kanpokotzat jo duten praktika da:

- 1995eko uztailaren 7ko epaiketa batean, **Jose Domingo Aizpurua Aizpuru** espainiar segurtasun indarrei entregatzeko erabakiaren inguruan honela esan zuen Pariseko Epaitegi administratiboak: "bere interesen aurka hartutako edozein erabaki, oinarri legalik gabea da, eta beraz, Aizpurua Aizpuru jaunak, bere indargabetzea eskatzea zilegi du"

- 1999ko otsailaren 4an **Josu Arkauz Aranaren** kasuan Pauko Epaitegi administratiboak egin zuen epaiketak, Frantziatik Espainiara kanporatzeko erabakia ezetatzen du honako zio hauek direla eta: "Erabili izan den auzipetze formula kontuan hartuz, ez dagokio frantses administrazioari M. Arkauz Arana espainiar agintariei entregatzea; Audientzia Nazioaleko espedientetik, eta bereziki 1997ko otsailaren 14 ko aktatik, agintari frantsesek Arkauz la Junquerako mugan agintari españolei entregetu dutela ondorioztatzen da, eta beraz, formagabeko erabaki hau botere gehiekikeriaz kutsatuta dago eta ondorioz anulatua izan behar da"

- 1999ko maiatzaren 26ko epaian, Toulousseko Epaitegi administratiboak, 1995eko abenduaren 8an, **Mikel Zarrabe** espainiar segurtasun indarrei entregatzeko agindua ezeztatzen du honako arrazoi hauek argudiatuz: "Kontuan hartuz [...] neurri polizial administratibo soil bat suposatzen duen kanporatze dekretuak, atzerritarra bere nazionalitatea duen herrialdeko mugara eramateko baimena ematen diola administrazioari. Legalki entrega polizien eskuetan egitea ezin daiteke onartu, honek atzerritarren estradizioa aztertzen duen 1927.urteko martxoaren 10eko legearen disposizioak ezeztatzen baititu. Horrez gain, egoera hauetan, Zarrabe jaunak polizia espainiarrei bere pertsonaren entrega egiteko erabaki inplizituak oinarri legalik ez duela esan dezake, eta beraz, honen ezeztapena eska dezake ".

- **Josu Urrutikoetxearen** kasuan, Toulouseko Epaitegi administratiboko 1999ko maiatzaren 26ko epaiak, Espainia helmuga herrialde gisa hartzen duen eta interesatua espainiar agintariei entregatzea onartzen duen 1996ko maiatzaren 3ko ministeritza erabakia ezeztatzen du.

- 1999ko uztailaren 1ean, Versallesko Epaitegi administratiboak **Pilar Mondragón Zabalaren** entrega baliogabetzen du zio hauek direla eta: "Kontuan hartuz [...] atzerritarren estradizioa aztertzen duen 1927ko martxoaren 10eko legearen 3.artikulua: Frantses gobernuak, eskaera baten ondoren, errepublikaren lurraldeetan dagoen edozein gizabanako entrega diezaieke atzerritar gobernuei, estatu salatzailearen izenean salaketa baten objektu denean edota epaitegiek ezarritako zigor agindu baten objektu denean. Mondragón Zabalaren entregari dagokionez, espainiar gobernuak frantses gobernuari inolako eskaerarik egin ez diola agertaraziz, ondorioz entrega hori baliogabetua izan behar da ".

- 1999.urteko uztailaren 1eko epaiketaren arabera, Versallesko epaitegi administratiboak **Maria Gomez Gorrotxategiren** entrega agindua ezeztatzen du aipatu arrazoi berberengatik.

- 1999ko azaroaren 8an, Versallesko epaitegi administratiboak **Mari Luz Bella Bringasen** entrega baliogabetzen du.

- 2000ko maiatzaren 24an, L'Essone-ko prefektoak, 2000.urteko uztailaren 7an askatua izan behar zuen **Alberto Lopez de la Calle Gauna** jaunaren Espainiarako kanporaketa agintzen du. Giza Eskubideen Europear Epaitegiak Espainiara ez kanporatzeko eskatzen dio frantses gobernuari. Ondoren, 2000ko irailaren 26an, kanporaketaren geldiaraztea agintzen du Versallesko Epaitegi administratiboak. 2000ko irailaren 26ko epaiketan, honako hitz hauetan, Versallesko

Epaitegi administratiboak erabaki hau ezeztatzen du: "1945eko azaroaren 2ko ordenantzaren 27 bis artikuluaren hitzak kontuan hartuz, atzerritar bat ezin daiteke beste herrialde batetara kanporatu, bere bizia edo askatasuna mehatxaturik baldin badaude, edota Hitzarmenaren 3.artikuluaren aurkako tratuak jasotzeko arriskuan baldin badago (...)".

"Pertsona baten askatasuna mehatxaturik dagoen herri batetarako espultsioa debekatzen duten arauek irakurketa edo aplikazio literalik ezin izango luketela jaso kontutan harturik ere, pertsona honek duen nazionalitateko herri berberaren helmuga ez litzateke erregularki jokatzea, aipaturiko arauak nazioarteko estradizio prozedura zuzentzen duten arauen arabera irakurri beharko batí lirateke, eta arau hauek, epaitegiek erreklamatua bada, estradizioaren prozeduraren ondorioz izan beharko litzateke entregatua".

Lopez de la Calle Gauna jaunaren espedientetik, bere helmuga Estatu española dela eta prefektuak ez duela Espainiarako helmuga espainiar agintariei egingo zaien entregarekin batera joango dela eztabaidatu kontutan harturik, Lopez de la Calle Gauna jaunak, dekretuak Espainia helmuga herrialde gisa ezartzen duen erabakia, estradizio baten itxura osoa daukanak, kanporaketaren inguruan erabaki irregular gisa mantentzeko zilegitasuna du.

- 2000ko urriaren 24ko epaiketan, Melun-ko Epaitegi administratiboak 1998ko urriaren 9ko erabakia baliogabetzen du. Azken honetan, Val-de-Marneko prefektuak **Iñaki Lopez de Bergara Astolaren** Espainiarako kanporatzea agindu zuen.

- Azkenean, 1997ko ekainaren 20ko sei epaiketaren ondoren (nº 9615356/4 Arruti Agirre; nº 9615349/4 Hernandez Lamsas; nº 9615347/4 Lopez Galarza; nº 9615350/4 Portu Espina; nº 9615348/4 Segura Burgos; nº 9615353/4 Pagoaga Gallastegi), Pariseko Epaitegi administratiboak, Barne ministroak, Espainia helmuga herrialdetzat emanez, 1996ko ekainaren 8an emandako dekretuak baliogabetzen ditu honako arrazoiak argudiatuz: "Kontuan hartuz Espainia helmuga herrialdetzat hartzen duen 1996ko ekainaren 8ko dekretuak, 1979ko uztailaren 11ko legearen lehenengo artikuluan oinarritu behar den neurri poliziala osatzen duela; eta halaber, 1983ko azaroaren 28ko dekretuaren 8.artikuluaren indarrez, ezin izango da esku hartu legalki, M. Arruti Agirrek idatzizko alegazioak aurkeztu arte... Kanporaketa prozesuen inguruko 1945eko azaroaren 2ko ordenantzen 23tik 26rako artikuluek, ez dute aipatzen eskaeren objektu izan diren atzerritarrek entrega herrialdeen inguruko salaketak aurkezteko eskubidea duten edo ez. Aipatu ordenantzaren 27 ter artikulua aplikatuz, espultsioaren aurkako erabakia hartu behar da. Kontuan hartuz Barne ministrariak ez duela 1983ko azaroaren 28ko dekretuaren 8.artikulua ez ezartzeko egoera suszeptiblerik aurkeztu, ez duela ukatu disposizio horiek denboran errespetatuak izan ez direla; ondorioz, M. Arruti Agirrek ezarritako salaketaren aurrean defendatu beharra daukala aipatu salaketa hori prozedura keria batean murgildurik dagoela alegatuz, baliogabetzea eskatu behar du".

Kanporaketa sistemaren barruan salaketa ugari egon direla eta Kanporatze Batzordeek euskal militanteak Espainiara kanporatzearen aurkako oharrak egin dituztela ere aipatu beharra dago.

Horrez gain, euskal herritarren kontra prozedura hau etengabe erabiltzeak estamentu, erakunde humanitario ugari eta pertsonalitateen protestak eragin ditu, hala nola, Amnesty Internacional, Torturaren Aurkako Mundu Erakundea, Torturaren Prebentziorako Elkartea, Giza Eskubideen Liga, Torturaren Aboliziorako Elkarte Kristaua, Giza Eskubideen Babeserako Hitzarmena, Espetxeen Nazioarteko Behategia, Magistraturaren Sindikatua, Frantziako Abokatuen Sindikatua, Alderdi Komunista Frantsesa, Dominique Voynet (Berdeen eleduna, egun frantses gobernuaren ministraria, Gaillot jauna, Gotzaina...).

Espainiar segurtasun indarrek torturatuak

Frantzian sortu eta egoteko egoeren inguruko 1945eko azaroaren 2ko ordenantzaren 27 bis artikuluaren arabera, honela baieztatzen da: "Atzerritar bat ezin daiteke herrialde batera urrundu 1950eko azaroaren 4ko Gizakien Eskubide eta Oinarrizko Eskubideen Babeserako Europear Hitzarmenaren 3.artikuluaren aurka doazen tratuak jasotzeko arriskuan baldin badago". Gainera, Gizakien Eskubideen Europear Gorteak eta Giza Eskubideen Batzordeak jasotzen duten bezala, estatu batek ezin dezake inor beste estatu batera urrundu, azken honetan tortura eta tratu krudel, ez gizatiar edo degradanteak jasotzeko arriskuan baldin badago".

Alabaina, debeku honekin kontraesanetan, frantses agintariek torturatuak izan diren euskal herritarrak entregatu dizkie espainiar segurtasun indarrei. Azaltzen dugu:

- 1986ko azaroaren 3an, poliomelitisak jota zegoen **Pablo Vivanco Ruiz** entregatu zuten frantziar agintariek, ondoren torturatu zuen espainiar poliziaren esku utziz.

- 1993ko uztailaren 10ean, Frantziatik espainiar poliziari entregatua izan zen **Manuel Chavarri Lopategi** torturatua izan zen.

- **Jose Domingo Aizpurua Aizpuru** 1994ko ekainean kanporatu zuten frantses lurraldetik, espainiar segurtasun indarren esku utziz. Hauek torturatu zuten. Hain zuzen ere, Torturaren Prebentziorako Europear Batzordearekin Delegazioko (CPT) kideekin elkarrizketatu zen, Espainiara 1994ko ekainaren 10etik 14ra egin zuten bisitan.

- 1995eko abenduaren 8an, frantziar poliziak **Mikel Zarrabe** entregatu zion Guardia Zibilari. Hauek galdeketetan zehar bortizki kolpekatu zuten.

- Teodoro Meabe Derteano 1996ko martxoaren 7an entegatu zuen Frantziak urjentziaz. Guardia Zibilak torturatu egin zuen.

- Agintari frantziarrek 1996ko ekainaren 5ean utzi zuten Luis Iruretagoiena Guardia

Zibilaren esku. Hiru egunetan zehar tortura saio etengabeak pairatu zituen (indar elektrikoak, kolpeak, buruan plastikozko poltsa...). Horrez gain, inkomunikatuta mantendu zuten hilabete batez.

- 1997ko otsailaren 13an **Josu Arkauz** entregatu zieten frantses agintariek Guardia Zibilei. Tortura sesioak jasan behar izan zituen hiru egunetan zehar eta atsedenik gabe (kolpeak, buruan plastikozko poltsa, loaren ukazioa...). Isolamendutik ateratzean CPT-k bisitatu zuen.

- 1999.urteko apirilaren 13an, polizia frantsesak espainiar poliziari entregatu zion **Mari Luz Bella Bringas** Junquerako muga pasabidean. Egun biren buruan, epailearen aurrean tratu txarrak jasan zituela eta buruan kolpeak eman zizkiotela salatzen du. M.L Bella Bringasek 13 urte zeramatzan Frantzian errefuxiaturik, izan ere tortura pairatu zuen Espainian jarraiko 10 egunez. Bere atxiloketan, "bainontziaren" oinazea ezarri zioten behin baino gehiagotan.

Garrantzitsua da aipatzea, pertsona horiek Frantziatik, ondoren torturatuak izango zirenaren jakinaren gainean espainiar segurtasun indarrei entregatuak izan zirela. Honek egoera larria suposatzen du. Hain zuzen ere, espainiar segurtasun indarrek ezartzen dituzten tortura eta tratu txarrek, agintari espainiarren oniritzia jasotzen dute. Estatu espainiarraren inguruan nazioarteko estamentu ugarik berretsi dituzten gertaerak dira: gertaera horin inguruan Giza Eskubideen Batzordeak eta Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak emandako egiaztapen eta gomendioak, Espainiara egin zuen bisitaren inguruan Torturaren Prebentziorako Europear Batzordeak egindako txostenak (1996ko martxoaren 4an publikatuak), torturari dagokionez Kooijmans eta Rodley, Nazio Batuen ordezkari bereziek egindako txostenak, Amnistia Internacionalek egindako txostenak, Espetxeen Nazioarteko Behaketaren Torturaren Prebentziorako Nazioarteko Elkartea... ditugu.

Horrela, hitzarmenaren 40.artikuluaren bertutez Espainiak aurkeztutako txostena aztertu ondoren, 1996ko apirilaren 3an Giza Eskubideen Batzordeak, espainiar segurtasun indarren esku ekintza terroristez salatutako pertsonek pairatu tratu txar eta torturen inguruko txosten ugariak zirela eta, arduraturik zegoela adierazi zuen. Batzordeak, gertaera hauen inguruko txostenak ez direla egoki tratatzen egiaztatu zuen. Horrez gain, gertaera hauek direla eta erruduntzat hartu eta espe-txe zigorra ezartzen zaien segurtasun indarretako kideak, ezarritako zigorra bete gabe berehala askatzen dituztela esan zuen Batzordeak .

Frantzia Torturaren Aurkako Nazio Batuen Batzordeak kondenatua

Torturaren Aurkako Nazio Batuen Batzordeak, Frantziak aurkeztutako bigarren txostena aztertzean, 1998.urteko maiatzaren 6an, Batzordeak bere ardura agertzen du frantses jurisdikzioak praktika hauek legez kanpokotzat jo arren, herrialde batetik besterako, polizia batetik besterako (Espainia) entregak ematen direlako. Honek, Frantziak Hitzarmenaren 3.artikuluko disposizioak ez betetzea erakartzen du. Hori dela eta, aipatu artikuluaren disposizioekin kontsekuentea izateko gomendioa egiten dio, kanporaketa zein estradizioaren kasuetan aplikatzeko eskatuz .

1999.urteko azaroaren 9an hartu eta urte bereko abenduaren 1ean kaleratutako erabakiaren arabera, Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak, Frantziak hitzarmenaren 3.artikulua bortxatu zuela egiaztatu zuen, 1997ko urtarrilaren 13an Josu Arkauz Arana espainiar Guardia Zibilaren esku utzi zuenean alegia. Halaber, Giza Eskubideen Babeserako nazioarteko erakunde ugarik, mugimendu independentistekin harremana edo hauen kide izatea leporatzen zaien euskal herritarrengan, espainiar segurtasun indarrek tratu txar eta torturak sarritan ezartzen dituztela salatu dutela gogoratu zuen Batzordeak. Horrez gain, pertsona hauek atxiloketak irauten duen denboran zehar egoera oso zaurkorrean daudela azpimarratu zuen.

Torturaren Prebentziorako Europear Batzordeko delegazio batek (CPT) 1997ko urtarrilaren 17an bisitatu zuen Josu Arkauz Arana. Honen inguruan, garrantzitsua da aipatzea bisita honen ondoren CPT-k egindako txostena 2000.urteko apirilaren 13an kaleratu zela. Txosten honetan, CPT-k Josu Arkauz Aranak egindako tratu txarren adierazpenak errealak direla egiaztatzen du.

Entzutegi Nazionalak 1998ko ekainaren 12an J. Arkauzi ezarritako 83 urteko espetxe zigorraren ondoren, Arkauzek helegitea aurkeztu zuen Espainiako Epaitegi Konstituzionalean. Egia esan, pertsona hau torturapean jasotako deklarazio polizialak oinarritzat hartuz kondenatu dute, izan ere Guardia Zibilak inkomunikaturik zegoenean, epailearen aurretik igaro baino lehen torturatu bait zuen. Une honetan beraz, estradizio legeak bortxatzen dituen prozesu irregular baten ondorioz dago espetxean, Entzutegi Nazionala, epai helegarriak ez dituen salbuespen epaitegia izanik.

Espainiar espetxeetan gatibu

Frantziatik kanporatu eta Espainian espetxeratutako pertsonak, espainiar espetxeetan dispertsio politika bati azpiraturik daude. Dispertsio politika hau, Barne eta Justizia ministrariek zuzentzen dute, presondegietako agintariek gauzatzen duten bitartean. Formula honen bidez, euskal preso politikoen erresistentzia apur-tzea bilatzen dute.

Politika honek, berez ere latza den espetxearen egoera larriagotzen du, izan ere presoak etengabe aldatzen baituzte kartzelaz, eta beti ere bere jaioterri eta famili girotik urrunduz, familiatik urruntzea eta presoaren insertzio ezintasuna erakartzen du. Gainera, epe luzeak ematen dituzte isolamendu ziegatan, beraien egoera are

gehiago larriagotuz. Giza Eskubideen Batzordeak adierazi bezala, espetxe espainiarren egoera ezin txarragoa da, eta presoen egoerak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 10.artikuluak jasotzen dituen eskubideak urratzen ditu .

Interesatuak ezin daitezke Espainiara kanporatzeko erabakien aurkako helegite eragingarriez baliatu

Giza Eskubideen Europear Hitzarmenaren 13.artikuluaren hitzetan: "Hitzarmen honetan onartzen diren eskubide eta askatasunak ukatzen zaizkion pertsona orok, instantzia nazional batean eska dezake helegite eragingarria". Alabaina, 1994ko maiatzaren 11ko dekretuak agindua betetzeko epea 15 edo 30 egunetakoa izango dela adierazten duen bitartean, euskal herritarren kanporaketak jakinarazpena egin bezain laster burutzen dira.

Gainera, Espainiara kanporatzeko erabakia eta espainiar segurtasun indarrei entregatzea, kanporatze aginduarekiko erabaki administratibo ezberdinak dira, izan ere agindu hauek ofizioz egiten dira interesatua jakinaren gainean jarri gabe. Honen ondorioz, ezin dezake epailearengana jo bere kanporaketa burutu baino lehen. Edonola ere, jurisdikzio administratiboaren aurrean Espainiara gogoz kontra eramateko erabakiaren aurka aurkeztutako txostenak eta segurtasun indar espainiarren esku uzteak ez dute eragin etenkaririk.

TORTURA GAINDITZEKO NEURRIAK

Tortura gainditzeko beharrezko diren 8 puntu:

Zerbait egiteko garaia de la uste dugu dituen ondorioak konponezinak dira, eta azken 23 urte hauetan torturatuak izan direnen kopuruak zein sofrikarioaren ezagutzak, izu honekin bukatzeko tresneria lehen bait lehen abian jartzera bekartzen gaitu

Ezin gara eskuak gurutzatuta ditugula, edo arazo larri honi lepoa emanez gelditu, "ez dut hori egunkarietan irakurri" edota "usantza horien beririk ez nuen" aitzakiak besterik ez dira. Zoritxarrez, arazo honi kasu ez egiteak nardagarri diren praktika hauen babesleak bihurtzen gaituela esan beharrean gaude

Gure ixiltasunak, praktika hauei estaldura emateko baino ez du balio. Zentzu honetan, guk, kaltetu gisa, gure are garautxoa jarri nahi dugu, denon artean, torturaren gainditzea lor dezagun.

Horretarako beharrezko ikusten dugu:

1.- "Lege antiterrorista" delakoaren desagerpena, batez ere, Auziperatze Kriminaleko 520 bis eta 527 artikuluak, atxilotuaren inkomunikazioa 5 egunez luzatzea baimentzen baitute. Denbora honetan ematen dira tratu txarrak eta inork ezin du bermatu atxilotuen osotasun fisikoa zein psikikoa.

520 bis artikuluko lehen eta bigarren paragrafoen desagerpena, hauek baitira atxiloketan ematen den inkomunikazioa hirutik bost egunetara luzatzea baimentzen dutenak.

Gaur egun indarrean dagoen 520 bis artikuluaren testua honako hau da:

1-pean atxiloturiko edozein pertsona, epailearen menpean jarriko da atxiloketaren hurrengoko 72 orduetan guztiz ere, bere atxiloketa luzatu daiteke gehienez beste 48 orduz ikerketa burutzeko, beti ere, luzapen hau atxiloketa eman denetik 48 ordu pasatu ez badira eskatzen bada, jakinerazpen hau arrazoitua izan behar delarik, eta epaileak 24 orduren buruan onartu behar duelarik zoituriko jakinerazpen bidez eman beharko dira

2 baten atxiloketa ematean, epaileari eskatu ahal zaio atxilotuaren inkomunikazioa, honek 24 orduko epean bere erantzuna, beti ere arrazoitua, eman beharko duelarik

527 artikuluaren desagerpena, honek zehazten baititu inkomunikazioak dakartzan eskubideen ezeztapena:

-Konfidantzazko abokatu bat izateko eskubidea.

Atxiloketaren berri eta mementuoro atxilotua aurkitzen den tokiko berri senide edo eta atxilotuak aukeratzen duen pertsonaren ezagutzapean jartzeko eskubidea.

Parte hartu duen dilijentzien ondoren konfidantzazko abokatuarekin elkarrizketa pribatu bat izateko eskubidea Atxiloketaren arrazoien berri izateko eskubidea, inolako atzerapenik gabe.

Atxiloketak irauten duen bitartean, ixilik egoteko eta bere aurka aitorpenik ez egiteko eskubidea.

Gaur egun 527 artikuluaren testua hau da:

Atxilotua edo preso dagoen pertsonak, inkomunikazioak irauten duen garaian ezin izango du kapitulu hontan agertzen diren eskubideen erabilpenik izan, 520 artikuluan agertzen direnak izan ezik, honako aldaketa hauekin:

a)bere abokatua ofizioz izendatua izango da
b)2
komunikatzeko eskubidea ez du izango

c)6
den bere abokatuarekin elkarrizketa bat izateko eskubidea ere ez du izango

533 artikuluaren desagerpena, 384 artikuluan agertzen diren ekintzen balizko egileen kasuan, poliziari hauen atxiloketa edo eta etxe edo lekuetako miaketak egiteko inolako baimenik gabe egitea ahalmentzen duelako. Zehazteko, *(*
ziazko kasuetatik (artikuluaren bukaerarte.

533 artikulu honen gaur eguneko testuak honela dio:

Polizi agenteek atxiloketa baten hurrengoko momentuetan bere kasa aritu ahal izango dute, atxilotu hauek kartzelaratzeko agindua dagoenean, hauek nabaria den deliktua egitean atxilotzen dituztenean, polizi agenteek gaizkile baten atzetik doazenean, eta hau etxe batean ezkutatzen edo babesten denean, edo, aparteko kasuetan edo urgentziazko beharra dagoenean, 384 bis artikuluko ekintzen egileak direnean, edozein delarik ezkutatu edo babesten diren etxe edo lekua, eta horren ondorioz egiten den miaketan ere, atzematen diren efektu eta tresnak deliktuarekin harreman zuzena dutenean

Aurreko paragrafoan azaldutako miaketaren berri, eskudun den epaileari jakinaraziko zaio, hontara bultzatu duten zioen berri emanez eta jaso diren emaitzen berri emanez, eman diren atxiloketen aipamen barezia eginez parte hartu duten pertsonen eta gertatutako ezusteen berri eman beharko da

2.- Entzutegi Nazionalarekin jazargoan, epaitegi naturaletan epaituak izateko Euskal hiritarren eskubidea, kreditatua gelditu den bezala, ez baitu kasurik egiten tarteratu diren tortura salaketen kasuan eta torturarenpean lortutako aitorpenei egiten die kasu soilik.

384 bis artikuluan agertzen diren deliktuen kasuetan beraien instrukzio eta auziperatzean Entzutegi Nazionalak duen gaitasunaren desagerpena, frankismoko "Tribunal del Orden Público" delakoaren oinordeko zuzena bait da, bere lankortasun politikoaren behin eta berriroko agerbideengatik, eta beraz, zuzenbidezko estatu demokratiko bat zuzendu behar duten printzipioak hausteagatik, eta azkenik, nazioarte mailan jasotzen den lurralde eskuduntzaren urraketa ematen baita.

Hau, Auziperatze Kriminaleko erreformarako maitzaren 25en onartutako 4/1988 Lege Organikoaren Xedapen Iragankorraren desagerpenarekin zehaztuko litzateke, eta lurralde eskuduntzaren oinarrizko printzipioaren onarpenarekin, kasu hauek berezko epailearen aldetik ezagutzera ekarriko gintuena.

Xedapen Iragankor honek zera dio:

Entzutegi Nazionaleko Instrukzioko Epaitegi Zentralek ezagutzen jarraituko dute talde armatuetan dauden pertsonek deliktuak egitean, edo elementu terrorista edo bihurriekin erlazionaturik daudenen deliktuen egiteak, eta baita ere deliktu hauen egitearekin lan egin edo laguntzen duten pertsonek

3.- Atxiloketa luzapenaren ahalbidetzearen desagerpena.

